

# ZER EDO ZER

KRISTIÑAU-İKASTI TA GIZARTEATZAZ

**Baño be bai.**

**I**AUNGOIKO - ZALE'n aurreko zenbakian, «Gizartea ta Kristiñau-ikastiatzaz» zerbait esan gendun. Baña gai au garantzisuenetarikoa da-ta, gaur beste zerbait, «Kristiñau-ikasti ta gizarteatzaz» esatea egoki deritxogu. Gaya bardin *antzekoa* dan aŕen, zerbait alde bai'dago.

Lengoan, kristiñau-ikastia, gizarteko gaitzaren *osakai* bakaŕa dala esan gendun; orain kristiñau-ikastia gizartearen *eustazpi edo zimentu* dala diñogu. Burua oldozteko, eta begiak ikusteko dituanentzat, egi argia da, eta begiak itxi, eta egia ikusi gura ez dabenentzat be *baŕ-beaŕekoa*

Kristiñau-ikasbidea, askorentzat alpeŕekoa euren eŕuz izan aŕen, gustientzat be aŕeko gauza da.

Begiak zabaldu gura ez dituanentzat, argia alpeŕekoa da, baña ikusteko beaŕ-beaŕekoa be bai. Gosez dagoanentzat, giltzapean dagoan ogia alpeŕekoa da, baña beaŕ-beaŕa be bai, biziteko.

**Kristiñau-ikastia be beaŕeko gauza da.**

Eta ori gustientzat, *egizko* gizaŕterik, bere irakatsietatik aldendu ezkeru, ez dago-lako. Gizaŕteak alkaŕenganako *egizko* maitasun barik ezin leike iraun, eta egizko maitasunik ez dago Yaungoikoaren maitasun barik. Eta egin-egiñean be auxe da, Yesu Kristo gure Yaunaren irakatsien una. Beraz Kristiñau ikastitik alduenduta bizi dan eŕia, alkaŕenganako maitasun bako eŕia izango da, eta, maitasun bako eŕian gizaŕterik ez dago, abere talde bat baño. Gizona, gizonarentzat *anai* izan beaŕean, beñolako olerkariak esaten eban lez, *otso* izango da.

Auxe gertatu zan Yesu-kisto etofi aŕ-etiko gizaldietan, eta auxe dakusgu gaur be, kristiñau ikastia ez ezagutu, eta nai ez daben eŕietan.

Beraz,

**Kristiñau-ikastia ala basatiŕeria.**

Ala Kisto'ren irakatsi zoragaŕiak ziñestu eta zintzoro bete, ala basatiaren asmo ta egite galgaŕipean bizi. Bitarterik ez dago. Kistaŕ *zintzoago* eta basatikeri gitxiago. *Azalez* bakarik kistaŕ diranak, aza-

la apur bat uratu ezker, biotz bafuko asmoak *basatiarenak* izango ditu.

Eta *basatikeri* izenaz, gustitariko basatikeria, adirazi gura dogu. Naiz iskiluz ala makilaz, gizonari sakela kentzearen iteko gertu dagoana; naiz, arpegiz-arpegi asafu ez-da, soñeko edefez apainduta agertzen dana. Soñeko apañez yantzi arren ba bere girña txararak eziten alegintzen ez dana, basati bat baño ez da-ta.

Yaungoikoa maite dabena bere laguna be maiteko dau; iñori txarik egiterik bururatu be ez yako egingo, eta ofez gañera, al dabenez on egiten alegindu be bai. Bizitza, yolasean igaroteko ez dala bai-daki, bere bearkuna beteta, beste bizitzan saria irabazteko baño.

### **Baña kistaf zifesterik ez daukora,**

Gustia eriotzeagaz amaitzen ba'da; zer dala-ta zuzen ibili? Zer dala-ta girñak ezi? Zer dala-ta iñoren menpean egon? Zer dala-ta, bide zuzen ala okerez, al dan gustia ez eskuratu? Zer dala-ta daukarnari ez kendu? Eta ondo ba'yatorko, zer dala-ta gizonik ez il? Zer dala-ta norberari bururatzen yakona ez egin..? Ori basatikeria dala..? Ta zer..?

Laster erantzungo dautzue: «Niri, arimari ez daukodala irakatsi dauste. Beraz, ni abere bat baño geyago ezpanaz, neure *prentsua* beaf dot, eta emon gura ezpadaustazue neure *erpak* gertauko ditut beaf dodana artzeko. Geroko bizitzarik ez dagola esan daustazue; ba, orduan, nire *zerua emen* beaf dot, eta neure girñak asetzea galerazteko bidera urte ten daustana, garbi yausiko da. Eta nekerik igaro baño len, neure burua il da kitu..! «Ia kristiñau-ikastirik ez dala beaf esaten dabena *zibilizauak* (?) oferi zer erantzuten dautsoen! Eta or ikusiko ditugu,

amasei-amasaspi urteko mutikoak, euren buruari tiro bat emoten! bizitzaz asper-tuta dagozalako!!! Eta beste batzuk urka-mendian yafita euren gaiztakeriak afoke-riz zabaltzen!!!

Kristiñau - Ikastia aintzat ez artzearen ondoren galgariak ofexek dira. Eta kristiñau - ikasti gitxiago eta olako geyago ikusiko ditugu!

### **Kristiñau-Ikastia ta espetxeak.**

Eta lotsagarikeriok basteftzeko, espetxeak eta indara naiko ez dira. Ori adafak ebagi ta sustraya osorik itxitea da. Bañerago yo beaf da. Auxe da Gure Yaun maiteak irakatsitako bidea; *Girña txaraki ezi ta Yaungoikoaren bildur deunean bizi*. Gizonari auxe egiten irakatsi beaf yako. Eta bide ori artu ezker, ainbeste txinel (aguazil) eta espetxe ez litzake bearko. Eta ori egin ezik, ludia gudariz eta espetxez betetea be ez da naikoa izango.

*Amaf mila kristiñau zintzo* zaintzeko, txinel bat be ez da beaf; eta Yosuren irakatsiak gorotutzen dituan *bat* zaintzeko *amaf mila txiñel* ez dira naikoa.

### **Kristiñau-Ikastia eta oitura onak.**

Beraz esan bearik be ez da, kristiñau zintzoak ugari diran artean, ekandu onak dis-dis egingo dabela, eta Kisto'ren irakatsietatik aldenduta bizi ezker, oitura txaren izufi galgaria, gizartearen gañera yausiko dala.

Eta gai onetzaz ara, osagile yakintsu batek, ogei urtean egin eban oituaen arteketatik atara ebana: Berak diño: 324 sendi asafez sakabanatuetatik, 320 zenbatu nituan iñoz igandeetan mesarik entzuten ez ebenak. 417 gaste gurasoen lotsagari izan ziranetatik, *amabi* bakarik, saritan eleizara yoaten ziran. Polot edo



kiebra egin eben 23 diru-etxeen yaubee-  
tatic, bat be ez zan eleizara yoaten.

Euren guraso zarentzat biotz gogof  
izan diran 25 semeetatik, 24 ez ziran au-  
toftu lenengo Yaunaftza egin eben ezker-  
tik. ¡lgalietatik zugatza ezagutzen ba'da...  
Txikitan, ostikoka ekien zaldi ala man-  
doen baten ondoan lagun bat ikusten  
genduanean, auxe esaten geutson: «Mutil,  
kendu adi ortik, ofek «Ni pekatari»rik  
ez yakik-eta»...

Eta esakun ofek guk orduan uste gen-  
duan baño *pilosopi* geyago dauko gero...

Izan be, «Ni pekatari» ez dakiana-  
gaz, anka bikoa izan arén, arduraz ibilte-  
ko da...

Kistañ-ikastirik gura ez dabenak *zeozer*  
dala-ta ez dau gura, ba,

Goiko Yaunaz aztuta	Biotz ustel eta utsik
safi dabiñena,	safi adimena,
esker edo eskumaz	gogoz efen bikoitza,
beti da eñena,	¡Orixe txafena!..

Auxe dala-ta

### **Kristiñau-ikastiak etsayak beti izango ditu.**

Eta Kristiñau-ikasti-zaleak be bai. Kris-  
tiñau-ikastia, txefenaren kaltez izkiñurik  
indartsuena dalako, alegin gustiak egiten  
ditu, eta egingo be bai, kristiñau ikasbi-  
dea zabaltzea galerazteko.

Beraz, gure antzera, araso aztun, baña  
edeñ au, leporatu dabenak, etsayak *beti*  
izango ditu, eta *beañ be bai*, zuzen gabil-  
tzan yakiteko guretzat ezaugaririk onena  
orixe izango da-ta.

Batsuetan geure gogoan epelkeria sar-  
tu eraginda, kalte egiten aleginduko da.  
Beste batsuetan, Yaungoikoak nai daben  
lez, irakasten alegintzen garealako be  
guda egingo dausku. Txefena ez dok le-  
loa! Gure menditafetik Kristiñau ikastia,  
zearo bazteftzea gauza eñeza ez dala on-

do daki-ta... ¿Zer egin? Irakatsi bear da-  
benari kristiñau-ikastia azalez irakastea  
naiko dala buruan saftu, eta olan irakas-  
ten dana azalean geratzen dan lez, gir-  
ñaren aize zitalak eñez igartzen dau eta,  
txefena orduan... pozik ez, ezin dabela-  
ko, baña... bereaz urten...

Egia esateko ar neure eretxi bat da  
eta... zuzena dala uste dot. Neuk bein-  
tzat txefenen tokian, kristiñauai kalte  
egiteko bide ori aukeratuko neuke.

Eta lagun maitiak; ofetan txefenari ber-  
eaz urtetan ez dautsogu itxi beañ... Kris-  
tiñau ikastia, ¡irakatsi! irakatsi ta iraka-  
tsi!.. Eta ondo irakatsi be, Yaungoikoak  
nai daben lez...

GAMA.



## **Ondo irabazia**

*Gure Gotzain agufgafiari «Ministerio de  
Instrucción publica»ren eskabidez Albon-  
tso XII gurutzea emon dautsoela jakin-azo  
dauskue izpafingiak. Jakitunai emoten ei  
yake omen ori ta oingoan zuzenez emon  
dala esan biarik ez dago, gure Gotzaña  
jakitunen artean aspaldian goiko mañetan  
ipiñita dago-ta.*

*«Jaungoiko-Zale»koen poz-agerkai au  
artu begi bedofek.*

# MUTIKOEN GAUZAK

Afi artetik éfekatxo lez,  
yolas ta yolas egiten,  
euren biotzen alaitasunaz  
inguru danak poztuten,  
ikotika ta gora goraka  
dakust mutiko taldea,  
ifibafeaz espanetan da  
biotza pozez betea.

Txirtxiñak baño bañitsuago  
txori taldea dirudi,  
batzuk abesten, bestiak txalo  
oro dakustaz urduri.  
Euren poza da ekañ, garbia,  
ituñiko ura legez,  
biotz bañendik urteten dana  
uran antzera yoranez.

Batzuk besteak arapatzen da  
talde bat dabil pelotan,  
arunzxoago sei edo zortzi  
intxaufakaz yolasetan.  
Baña baiñ dira gaistotxoak be,  
añiak gogof yaurtirik  
uñean dagon sagar batetik  
ale batzuk artu nairik.

Zugatz azpira dojala bata  
sagar muskil bat artzeko  
ordu txafean uñeratu da  
bere zoritxañerako.  
Lagunak yaurti daben ari bat  
eldu da bere gañera,  
ta gixaxoa buruan yota  
yausten da luze luñera.

Mutil gustiak ixildu dira,  
pilaturik bere ondoan,  
ikusten dabe zauri andi bat  
lagun gaxoen buruan.  
Danak ixilik! danak ixuti!  
laguna il dalakoan,  
buru gustiak pilan dakustaz  
negar-malkoaz mosuan..!

¡Ura mutiñak!... didañ bat dantzut,  
ta bizkoñ doaz lau, bost, sei...  
ta an datoz eskuz eutsi eziñik  
iges dagitsen ur pizkai.  
Eta malkoaz nasturik ura  
garbitzen dautse zauria,  
bere senera ekañ arte  
euren laguntxo maitea.

Eta ikusirik alaitzen dala  
laguntxoaren mosua,  
poztasun andiz betetan yake  
lafi eukien gogoa.  
¡Ene mutiñak! Ez dok ezebel!...  
Min andirik ez yok artu;  
ospin apur bat ipiñiaguz  
laster dok ori osatu!

Eta lagun bik erdian artu  
eta etxeruntz daroe,  
safirán baita adizkide lez  
bidean au diñotsoe:  
«Geldi dagonai, geldi laga yok,  
arika ez ai ibili;  
okeñkeritik onik ez yatok;  
auxe gertau yata iri».

Ta bitarñean an dabil beñiz  
lengo mutiko taldea  
ifibafeaz espanetan da  
biotza pozez betea.....

# ¿ZER ETE DIRA?

---

Asko dakusguz  
gauf egunean,  
non yana ta ara begira;  
Olan dabiltzan  
anka bikoak  
gizonezko ete dira?

Arpegiz alan  
irudiafen  
dakusgunean egiña;  
Aberea bai,  
aurkitukogu,  
ez baña ezez gizona.

Gizon danak ba  
gorputz ta gogo  
Izan bear dau benetan;  
Ez gizon antza  
gorputzez eta,  
abereki egiñetan.

Zugatza zer dan  
yakiteko ba,  
dakusgun lez igalia;  
Gizona zer dan  
yakiteko be  
egiñan dogu irudia.

Egiñetan ba  
geyenez ba'da  
abere antza daukona;  
Ori zer izen  
deitukotsegu?  
¿Abere ala gizona?..



# YAUNGOIKOAREN ARDURATASUNA

## Elbafitua eizaril....

Otoitza gure gogoarentzat, arnasa gure gorputzarentzat lez beaf-beafezkoa da; eta uste osoz eta biotz garbiaz egin ezker daukan indafa yazokun onetan argiro ikusi geinke. 1868'n inguruan gertatu zan. Michoacán'go (Mexiko) gon-gotzain edo Artzobispo aldi atan Arziga Jose Iñazio yauna aukeratu eben.

Goterkiko eririk - efi, gotzain - ikertzea (visita pastoral) egitean Huacama deritxon 5.000 biztanle inguru dauzan efiara eldu zan. Oi eban lez, Sendatza emon baño len gizostea, autorkuntza bidez, gertatzen ziardualarik elbafi gixajo bat ikusi eban, eta efukiturik beragana deituta itandu eutson:

—¿Nongoa zara?

—Aitatxo—erantsun eutson—emendik amabost ordu bide baño geyago dagon mendi batekoa naz.

—¿Eta zelan etofi zara?

—Mando baten ganean, Aitatxo.

—¿Ze bizikera dozu?

—Ni alarguna naz, eta eskongai diran alaba bigaz bizi naz.

—Ta zure bizibidea?

—Eizari (kazari), Aitatxo.

—¡Zu eizari!... erantzun eutson afiturik bañeari eutsi ezinda.

—Bai, Aitatxo—erantzun eutson benaz elbarituak.

—Baña ze arapatzen dozu ba?

—Basauntzak, Yauna.

—¡Basauntzak!.. Ori ezin leiteke izan; erdi bañez eta erdi asañez esan eutson, lelo ala guzurtiren bat zalakoan.

—Alantxe izango litzake neure Yaungoiko Aitak lagunduko ezpaleuskit.

—Esan egidazu ba ori zelan dan.

—Ara Yauna, erantzun eutson elbafituak, esan dautsodan lez ni alafgun naz eta alabatxo bi baño ez daukodaz. Eta Yaunak emoten daustazan egunak onantxe igaroten dodaz: Goizean yaikitzean neure Aita Goikoari otoi bat egiten dautsot; gero alabak gertatzen daustenaz gozaldtu ta su-izkilua (eskopetea) afituta al dodan lez afastaka eizara yoaten naz. Neure etxetik urean Yaungoikoak goizean eskatutako basauntztxo bat ur samar ipinten daust... Ilten dot, neure alabak etxeratzen dabe ta bere aragia ta nañua salduaz urte askotan bizi gara.

Gongotzañak afiturik ainbeste indar eukon otoitza zelakoa zan yakin gura eban eta esateko agindu eutson.

Eta berak:—Orixe ez Yauna, orixe ez! .... bixiro yardetsi eban.

—Zergaitik baña?...

—Lotsa nazalako.

—Baña ene seme; otoitz ori zure Yaungoikoaren afean ez dozu esaten?

—A! bai, Aitatxo; baña nire Aita Yaungoikoa... nire Aita Yaungoikoa beste bat da...

—Ara, eskañez esan eidazu.

—Aitatxo... zeuk agintzen daustazun edozer baña ori ez, asko lotsatzen naz ta.....

—Ba, orixe eskatzen dautzut eta lotsatu beařík ez daukozu.

—Baña, Aitatxo otoitz ori iñon ez dot irakuří eta iñok irakatsita-koa ez da.

—Dana dala esan.....

—Ara ba Yauna, asafetu ez zaitezán esan egingo dautzut. Goizean neure txoznatxoaren erdian belaunbiko yarten nazanean, neure Aita Yaungoikoari auxe esaten dautsot... E, Aita Yaungoikoa! Zuk daukodazan alabatxo biak emon daustazuz, eta baita ibiltea galerazten daustan gexo au be zeuk emona da. Nik alaba biei yaten emon beaří dautset, bide txarík aritu ez dayen; ia ba, neure Aita, neuk ilteko eran basaeuntztxo bat ipiñi egidazu urbil samar eta sendi oneri lagunduko dautsozu.....

Gongotzañak ariturik entzuten eutson arítean yaraitu eban:

Auxe da otoitza, Aitatxo, eta esanaz, eizara uste osoaz yoaten naz, eskatutakoa Yaungoikuak emongo daustala bai'dakit-eta. *Eta ogei urte onetan* gexo onegaz egon afen bere laguntzak ez daust utsik egin. Nire Aita Yaungoikoa on - ona dala-ko... on -ona..... (1)



#### BELENDAR NESKATILLAK

Elbaritu onen antzera otoitz egiten ba'genki....!

**M'af G.**

(1) Coloma abaren irakurgetatik euskeratua.

# ZER EDO ZER

## Garzime Deunatzaz.

**G**ARIZIMEA DALA-TA, batsu-batsuri ain-  
beste buru auste emoten dau-  
tsen Eleiz-urtearen atal ospetsu  
onetzaz, zer edo zer esatea egoki deri-  
txogu.

Garizimeari batsuk betozko iluna ipin-  
ten dautse, baña Yaungoiko-zale diranak  
urteko aldi onurako fenari lez begiratzen  
dautse. Eta izan be alantxe da.

Eleiz Ama Deunak urteko yai andien-  
tarako kristiñauen biotzak gertatzeko be-  
rarizko aldiak aukeratu ditu, batsuk len-  
txoago ta beste batsuk gerotxoago. Ba-  
ña, Pasko - aldiko yai andietarako gertal-  
di luzea, Garizimea deritxona, bere asier-  
atik ipiñi eban. Gizaldien gora - beretan  
aldakuntza batsuk izan ditu; baña, era bat  
edo bestez, gertaldi au betikoa izan da.

Auxe dala - ta, Yeronimo, Austin, eta  
Leon Eleiz-Guraso deunak, oitura au,  
Beldu edo Apostoluak ipiñitakoa dala di-  
ño. Gertaldi au, befogei egunerakoa  
izaten zala, Nizea'ko Eleiz Batzañ Nago-  
siak (can. 5) diño, 325'n urtean, eta ger-  
keraz izen onegaz deitzen dautsoe: *Tesa-  
rakostes*, guk euskeraz esango geun-  
ken lez; *Befogeikaroa*.

## Zer dala-ta befogei egun?

Yeronimo deunak diñoskunez, Idazti  
Deunetan zenbaki onek, ildura ta lazta-  
sun eta zigofa adirazten dau. Befoгеi  
egunean urioleak, gizadiaren gaiztakeria  
zigortzeko, gizadi gustia, sendi bat izan  
ezik ondatu eban. Ibertañ efiaren eskeñ  
-txañ eta menpetasunik eza, befoгеi ur-  
tean aruntz eta onuntz, eskiñitako efi-  
ra eldu baño len ibili beañaz, Yaunak zigofu  
eban; Mois eta Elias Lege Zañeko iragañ-  
le ospetsuak, Yaunagana urbildu baño len,  
batak Sinai eta besteak Horeb mendian,  
befoгеi egunean barau egin eben, eta Bef-  
ogeи eguneko barau eta ildurak Yesu  
-kristo'k egin zituan gero guri *Poen-  
tentiam agite*, (Matth, III-2) oben-nekea  
egin beañ genduala agintzeko. Egoki zan  
ba guk be befoгеi egunok aintzat artzea.

## Befoгеikaroa zertarako?

Befoгеi eguneko aldi au, gizaldi batsu-  
etan lentxoago ta beste batsuetan gero-  
txoago asten zana, gure biotzak Pasko  
aldiko alaitasunetarako gertatzeko dira.  
Lenengo gizaldietan, Pasko aldian Ugu-  
tza edo Bateoa artzeko egozantzat ger-  
taldi lez izaten zan, baita, oben andiak zir-  
ala bide, Eleizatik yaurtita egoten zira-



nak, euren gaiztakeriaren ordañez ildura eta oben-nekea eginda, aldi onetan, Eguen Gurenez, emoten yaken azkitz edo partatzerako gertatzen ziran. Eta orain olako oiturarik izan ez afen, orduan lez, geure obenen ordañez ildurak egiñaz, Paskoaldian geure biotzak Yaunagaz batzeko gertatzen gara. Azalez aldi itun eta iluna dirudi, baña bafua zerurako alaitasun eta eskañez betetzen dausku. Eleizeak, geure gaiztakeriaren ordeztu, damu bizia eskatzen dausku, eta bera ofetan laguntzen Ama samurra lez alegintzen da. Otoitzetatik *Alleluia* kentzen dau, oindi eta altaretatik apaingarriak; abestietatik alai usaña dabenak, soñeko ilunez yaupari abadeak agertzen yakuz... gustia gure biotzetan damu bizi bat sortu eragiteko, geure biotza, goiko egiak afeztaz ausnaftu eta beragandu daizan laguntzeko... Goiko-argia geuregandu, goiko laguntza eskatu, eta iñontz osasunkoña gure biotzetara yatzi eta Yauna'ren eskañ edo grazia, geureganduteko aldi aukerakoa. Ama samur onek Paul Deunaren itzok gomutarazten dauskuz «Auxe da aukerako aldia».

Kristiñauak ba Garizima aldian

### **Sifnesmena sendotu, barau eta ildurak eta otoi**

Egin beañ dau. Iru gauza bear beañekoak. Kristiñau zintsoak ziñeste sendoa beañ dau. Ziñestea ba, Paul deunak diñoskun lez, Yaungoikoari atsegin emoteko beañekoa da, eta Trento'ko batzaf deunak irakasten dabenez, gogo-bizitzaren oñañi ta sustraya. Beraz ziñesten sendoago eta gogo-bizitzak gure biotzetan sustrai sakonagoak izango ditu. Au bañiz Kristo'ren irakatsiak gogoz entzun eta afeztaz irakufi eta otoi egiñaz lortuko dogu. Eta gure aldian ba'da beañ-izana bel Ainbeste guzur eta naspil ziñestearen aur-

ka ikusirik, sustrai bako ziñestea laster igartzen da.

Baraua bañiz gogo-arasoetan zintzo yotzeko aukerakoa dala, nok ez daki? Bakoitzak norberagan ikusten dabene legea da; gorputzari nayera geyago egin, eta orduan da gure gogoa onerako muker eta nagiago egoten dala. Au ederki Eleiza Amak adirazten dausku barauak «Vitia comprimit, mentem elevat» (Praef Quadr.) au da; oitura txarñak zapaldu, ta gure gogoa gorantz begira ipinten dabela.

Ofeztu gañera, Eleiza Amak gure gogoen onerako agintzen dauskuzan barauak, gorputzeko osasunen kaltekoak diranik, ez uste, osagiñe yakintsuenak ao batez irakasten dabe ba, barauak, batez be udabañi aldean, osasunerako egokiak dirala, eta gustiak autortzen dabena da, geyegi yatetik gexo geyenak sortzen dirala, esakun zarñak diñonez «ezpateak baño mai ederñak geyago ilten ditu».

### **Alan da gusti be**

Bizitza yan-edan eta yolasetan igaroteko dala uste dabenek au irakufiko ba'lebe, iribañez esango leuskigu: ¡Barau ipuñakaz ogeigañen gizaldian?... Ofeztu abade ta prañen ipuñak dozak! Egazkin eta aribako ufutzikiñen aldian olako gauzakaz!.. Ezagun dok bai, ondiño ilunpean bizi zariela!.. ¡Ez zagoze gixajo txarñak!..

Eta tentelkeri oneik esanaz gauza andien bat esan dabelakoan, afo afo gelditzen dira, abereak itz egiten ba'lekie euren antzera itz egingo leukiela oartu barik.

Eta tamala da baña amaikatxo olako ikusten da!...

### **Bañia gizona dan gizonak**

burua txapela berotzeko, ala apaingaritzañ baño zerbait geyagorako daukenak, baru ta lastasunak, sentzunak eskatzen dituan

gauzak dirala, ikusiko dau. Eta eurak be, auxe bizitzako gora-beretan egiten dabe.

Salerosleak euren artu-emonen gorak berak azteftzeko, berarizko aldia aukeratzten dau; gexoaz argalduta gelditu danak, aizeak aldatu ta urak artuaz, bere gorpuzeko osasuna sendatzen alegintzen da. Lugiñak udabafian zugatzak iñäusten ditu, igali ugariagoak emon daizan; ofetarako adaf kaltegafi ala geyegiak mostu egiten dautsez, inguruak yofatu, eta zimaufez onduten alegintzen da. Urteak eurak udabafi aurfetik negua bialtzen daskue; eta eriotzaren antza eukiafen, neguko ixiltasunean lanik geyen egiten dabe eta udabafian birloratzen gaituen edertasan gustiak, neguan gertautakoak dira. Zugatzak neguan, ilda lez agertzen dira, azalez, baña baruan iñoz baño lan geyago egiten dabe.

Garizumea ba gogo-bizitzarentzat besterik ez da. Yofatzea, iñäustea, zimaufzea, azaletiko bakea, bafendiko lana.... Zerurantz doyan bideztiarentzat, geldi une bat lez, igaro daben bidea zuzena izan dan ikusteko, eta okefak zuzentzeko; atsedan aldi bat, indaf bafiak artzeko; iñäuste bat, biotzean sortu diran bedaf kaltegafi ta egoki eztiran adafak iñäusteko; itz baten, Yaungoikoagaz, bere buruaz eta geide edo lagun urkoagaz daukazan irabazi-galtzeak, saftu - urtenak, salerosle baten antzera, aztertzeke.... Eta ori sentzunak eskatzen dabena ez ete da?....

Ori alantxe da, baña bai egi andia be, nire lagun batek esaten daben lez, sentzunak uste dan baño safiagotan *bakaziñoak* artzen dituala....

Alan ba,

### Gizona dan gizonak

Eta geyago, kristinau dan kristiñauak, bere buruaren yaube izaten alegindu be-

aña dauko, eta orixe egiten daben neufiz, abere bizitzatik uñinkuko da. Orixe egiten alegintzen ez diralako, *jente* asko ikusten da basteretan, baña *persona* gitxi... Dionezez ospetsua, bere kurtzuluegaz *gizon* biña egun argiz ibili zan lez gauñ etofiko balitz, *mila* lagunetik *sei* persona bilatzeke zeregintzen eukiko leuke....

Norbere buru esitean, oftxe da lofa!.... Gudun garailari izatea be ezezago da,

### Yasokun onefan Ikusi gelkenez.

Prim, España'taf gudalburu ospetsua, bein aldun etxean itz egiten ziarduala, norbaitek berari min-emoteko eran erantzun eutson. Orduan Prim sututa yafi zan, eta bere senetik urtenda lez garazika erantzun eutson. Ain gizon ospetsua alan ikusirik, bere griñai eutsi ezinda, beste aldun batek itz gomutagafioek esan eutsozan: «Tetuan'en garailari izan intzan ofek, eure burua garaitu egik»...

Araso bikain onetarako Gariximea egoki-egokia da, eta ia, ia, burutik ofetaraño *persona* izateko beafekoa... Ez deritoxozu, irakufle?....

Otoi, lastasun edo penitentzi aldia da-ta irakufgai astuntxo au asieratik irakufteko penitentzi apuf bat egiten ba'dozu, Gariximea obeto igaroten ikasi zeinke eta... Pasko txala saltzea efazago izango yatzu....

GAMA.



# ONERATZE ARIGARIA

---



ERESETXO zoriondunak aspaldi egiten dituan mirari txorteari beste lora eder bat ezafi geinkio. *La Croix* izpafingiak ekafi dau bere bitartekotasunaz ondu dan gizon gaizto baten idazki eder bat. Eta ementxe argitaltzea egoki deritxogu. Egilearen eta Eleizako agintarien baipe naz argitaltzen da.

Ara zer diñoan:

«Igandez 1923'ko Ufíla'ren 21'n. Abade Yauna: Nik Yaungoikoagan ez neban ziñisten. Aspalditik nire gogotik Yaungoikoaren oldozpenak iges egin eban.

Paris'en bakañik bizi nintzanez, neu lakoxe ziñiste bakoakaz bakañik arñu-emo nak neukazan. Sañitan Yaungoikoaren kaltez biraoak esateraño eldu nintzan.

Alan da be, 1912'n (aldi au zeinduten dot ikusi dagizun, aspaldiko gauza dala) neugaz eztabaida bat euki eban abade bateg *Sor Teresetxoren Bizitza* emon eustan. Idazti au aretaz irakuñi neban, eta gogoratzen naz idazti au irakuñi eban neure anaya batek, beronetzaz autuan gengozala, itz oneik aitatu eustazala: *Lufari on egiten igaro gura dot nire zerua.*

Eta auxe da gustia. 1912'n urtea ezkerotik, Sor Terese'txo ta bere itzak nire gogoramenetik zearo iges egin eben. Nik gaiztakeri-bizitzari yafai'u neutson, eta atsegin bila bakañik nenbilen.

Orain ile bi dirala atsekabe andi bat izan neban. Bapatez, Sor Terese'txo bururatu yafan. Ni lako ziñesge bateri zelan bururatu leikio beregana laguntza eske yoatea? Ez dakit; auxe baiña, bai'dakit: belaunbikotu eta itz oneik esan nituala: *Ume Yesus'en Teresetxo eskar au yaritxi egidazu.* Eta bederatzi egunetan naiko gogoz



eskatu neutson. A, abade yauna, eskatzen nebana yaritxi beaŕean, bederatzi egun bafu ustegekeri (desesperaziño) utsak aftu nindun. Danak atzekoz-aufē, gustia nire aurka urten zan. Eta orduan neurekautan esan neban: *Gure gain ez da iñor; bizitza onen ondoren utsa baño ez dago; naikoa da.*

Su-izkĩlu, eŕebolber, txiki bat neukan eta erabagita neukan, neuri atsekabea emon eustana lenengo, ta gero neure burua ilteko. Egun gitxi bafu gaiztakeri bikoitz au zelan egin oldozten nenbiēn eta Sor Tere-setxo'ren amesik ez nebalarik, bapatez eta argiro itz oneik entzun nituan: *Luŕari on egiten igaro gura dot nire zerua.*

Ziñez diñotzut yauna; bein bakaŕik itz oneik entzun nituala (orain amaŕ urte neure anayak esan zituanean) eta aŕezkero iñoz iñoz ez yatazala bururatu.

Otz-ikara andiak aftu nindun, bapatez eta mirariz lez (ainbeste alditan aztuta neukazan eta) bururatu yatan itz oneik Sor Tere-se'txok eriotza aŕean esanak zirala. Aŕatsalde gustian itz oneik buruan nenbizan baña gaŕantzi andirik emon barik. Alan beaŕez, gau atan Garaitzen Andre Maria'ren Eleiz aŕfetik igaro nintzan, eta une batsuetan bertara sartzeko gogoa etofi yatan. Ikara neufiz-ganeko batek aftu nindun, eta neure begiok malkoz bete yatazan, koruan uŕezko izkiz itz oneik ikusi nituanean: *Luŕari on egiten neure zerua igaro gura dot.* Ordu bete luzean otoitz egiten ekin neutson; Zoriontzuak toki artara eroan ninduela gomutatzen nebalarik...

Abade yauna: Naigabe asko igaro dot neure bizitzan. Iñe bi dirala atsekabe bafiak gañeratu yataz, eta ain gogoŕak ziralaiko neure gurari bakaŕa eurak amaitzea izan zan neure bizitza amaituta. Baña oraintxe gogoratzen naz Zoriondunak nire aldez alatz mirari andi bat egin dabela, ba-

patez itzgeari itza ala itsuari argia emotea baño andiagoa.

Goikoz-bera aldatu naz: orain damudun eta ziñestedun egin naz, eta Kisto'ren oñe-tara eroan nau. Eskaŕ andi onen ondoren bere *Bizitza* erosi dot. Egunoro ataltxo bat irakuŕten dot eta berarizko atsegiñez ikusi dodaz itz oneik: «Gorputz eta gogozko laguntzaz ganera, Sor Tere-se'txok baf-eango itzak batsuetan esaten dautsez, bere babespean aftu dituzanak argiro entzuten dabezalarik».

Niri gertatu yatana auxe ez ete da? Alan ba iñoz ez nabela lagako uste dot eta egunen baten zerura eroango nabela be bai. Baña bizitza gustian zer egin dot oben baño besterik, eta zergaitik lagundu ete daust?... M. H.

G.

---

## BAŔEGARIA NEGARĜARI

---


Tabira-aldeko efi batean jolas-zaleak laŕegi, baŕegafia beaŕ zala-ta pozez eben erabagi:

Zezen gaiztoa kalerik-kale ebiñala, telatutik bakoitzak berak gura eban lez aizeatzea gogoŕki.

Uxu-axaka ebiltzala, bat yausten da kalera goitik, «*¡Oxux!*-diñue, *baŕegarixa* egin dogu negargafi».

Auxe yazo oi-da egunetatik larogetamaŕ eta bein.

Tx.



## MUTIKO YAUNGOIKOZALEA (1)

Alargun gaxo batek, goiz baten bere semè, ondiño gustiz txikiei, auxe esan eutsen:

—Semetxo maiteok; gaur goxaritzat emoteko ezer ez yaukat; gure etxean ez yagok ba ogirik, urunik, ez da aŕautza bat be.

Yaungoikoari aŕen eskatu egiozue lagundu daiskula. Bera aberats eta altsua dok eta Berak esan yok ba: «Zeure laŕitasunean deitu egidazu eta lagunduko dautzut».

Kistar txikia, ondiño sei urte ez eukozana, ikastolara yoan zan. Baraurik egoan eta biotza laŕitasunez gañezka eukon. Eleiza auŕetik igarotzean, zabalik egoala ikusirik, saftu ta oindi auŕean belauniko yaŕi zan; eta iñor ez egoalakoan goitik otoitz egiten asi zan.

—Gure Aita, zeruetan zagozana, ziñoan, bost ume gara, eta ezer ez dauku yateko. Gure amak ogirik ez dau, urunik be ez, ez da aŕautza bat be. Zerbait yateko emon eiguzu, osantzean gure ama ta geu be gosez ilgo gara. Zu aberats eta altsua zar-

anez, lagundu egiguzu. Zuk itza emonda dauskuzu-ta eŕez, guri laguntzera etofi zeintekez».

Kistaŕ txikiak olantxe otoitz egin eban, biotz samuŕaz, eta amaitu ebanean, ikastolara yoan zan.

Etxera biurtu zanean, etxeko mai gañean, ogi andi bat, azpil (*plaster*) andia urunez, eta otsara bat aŕautzaz beterik ikusi zituan.

¡O!—esan eban pozez beterik: Nire eskaria entzun daben Yaungoikoa onetsia izan bedi!

Ene ama; esan egidazu: zeruko gotzon edo aingeruen bat izan da, au ekaŕi dauskuna?

—Ez, erantzun eutson amak; baña Yaunak ire otoitzak entzun barik ez yozak itxi. I eleizan otoitz egiten egoala, endorearen emaztea koruan egon dok. Ik ezin eikian ikusi, baña berak ikusi au eta ire otoitza entzun be bai. Eta ire otoitzak biotz ikutu-ta, gure beaŕizana osatzeko bizkoŕ ibili dok. Bera izan dok zerutik bialdu yauskun aingerua.

Alan ba, ene semeok, eskaŕak egin Yaungoikoari, eta poztu zaitze, eta ez aztu iñoiz be egi eder onetzaz:

Edozein atsekabe ta samin aldian otoitz ba'dagiozu Yaungoikoari; Laguntza emongutzu gustiz ugari.

M'ŕaf G.

(1) Schimd.

# ZER EDO ZER

GIZA-BIZITZA TA GURUTZ BIDEA

## **Gaiza bakoitza bere aldian**

esan oi da-ta, Garizima'n gagozan ezker, lengo zenbakian oratu geuntson gayari zerbait ezafi beaf dautsogu.

Garizimea, ziñestea sendotu, otoitz egin eta girñak eziteko berarizko aldia da.

Gure Eleiz Ama'k lenengo amabost egunetan, geure uts - egitearen ordañez, ildura ta lastasun bidea erakusten dausku. Irugañen eta laugañen astean, bañiro yausi ez gaitez, birtute edo onoiemen ikasbide edefak begien aũean ipinten dauskuz. Eta azkenengo amabost egunen osan, Yesu - Kisto'ren Nekaldi gogoña go-goan erabilteko dei egiten dausku. Oben-bidetik aldenduteko aukerako gaya; onoiemen edo birtute ikasbide afigariak, bizitzan gurutza eroan beaf dogula, eta zelan eroan beaf dogun ikasteko ikasgai edefak... Aldi au boskañen igandean asten da, eta ofexegaitik Nekaldi Igandea deritxo. Aldi onetan Eleiza Amak Gurutza ta irudiak estaldu egiten ditu; Yesu - Kisto, egun onetako goizparkiak diñon lez, etsai artetik eskutau egin zala adirazteko, eta baita Nekaldian bere Yaungoikotasuna estaldu lez egin zala adirazteko.

Deunen irudiak be estaldu egiten dira; ez dirudi ba egoki, ugazaba irain eta neke artean dagoan bitartean, mofoyak aintzaz beterik agertzea. Aldi au bañiz gure bizitzaren irudia da.

## **Gure bizitza ba,**

Gurutze bizitza baño ez da. Edonork, norbere bañuan Paul deunak ain edefto azaltzen dituan lege biak somatzen ditu. Girñaren legea, luřeko gauzetara gure biotzari bultz egiten dautsona; eta adimen edo gogoaren legea, goirantz bultz egiten dauskuna. Eta yakiña indaf bi alkañen aurka dagozan tokian, buřuka; neke ta gurutzea bertan dagoz. Au lege gogoña da, baña legea; eta ez da iges egiterik. Eulia amareunean yausten danean, zenbat eta alegin geyago urteteko egin, lotuago gelditzen dan lez, lege onen azpitik iges gura dabena, bere sare artean lotuago baño ez da egiten.

## **Ofetzaz gañera**

bizitza onetan neke, naigabe, ez - beaf, samintasun, irain, gexo, esker-txař, itz baten, izen on, osasun, ondasun-galtzea eta



gizonak geyen maite dituan senide ta lagunen eriotzaz gurutzen bat eroan ez dabenik, ala beintzat eroan beaiko ez dabenik, ete da? Eta au nai-ta-ezko gauza izanik, gurutza geure sorbalda gañera datorrela ikusten dogunean zer egin?... Goñtau...? Betoztz begiratu?... ala maitekiro besartetu?...

### **Iru bide oneitatik bat aflu bea dogu.**

Eta ikusi daigun zein dan onena. Asko dira bizitz au yan-edan eta yolasetan igaroteko dala uste daben zoritxañekoak. Onei neke ta gurutza gauzarik ez aiatatu; aranoagandik oloak iges egiten daben lez, gurutzearen izena entzunaz bakañik ikaritzen dira, iges egiten dabe, eta euren etsai bakaña gurutza dala dirudi...

Bide zuzena ete da?..Ez orixe!...Euri zapafadatik iges, doyanak azkañago ta euri geyago artzen daben lez, neke ta gurutzatik iges egiten dabenak geldi egonda baño gurutza ugari ta astunagoak beragantzen ditu. Aterperik ez dagoanean zapafadatik iges egitea alpeñekoa da eta gañera kaltegaña; geyago busti ta nekatuteko baño ez da izango-ta. Arantzaz ingurututako bidean iges egin gurarik artegatzen danak, zauriak ugaritu ta sakondu baño ez ditu egingo. Eta egiak egi, bizitza orixe baño ez da. «Gizonaren luñeko bizitza gudaritza da», Yob deunak (2-1) esaten eban eta gudaritzan neketik iges egitea ez da eñez. Gurutzatik iges egitea, alpeñeko gauza ta kaltegaña baño ez da, itxaropen barik eta irabazi barik nekeak ugaritu baño ez ditu egingo-ta.

Bai dira beste batsuk, gurutzatik iges egitea alpeñeko gauza dala, ezin dan gauza dala-ta, gogo txañez artzen dabenak. Onek geyenez azalari begiratzan dautse, eta egia esan gure biotz argalarentzat neke ta gurutzak ez dauko azal polita, ez.

Eta mamiñari ez begiratzearfen, leporatzen dabe bai, baña, gogo txañez, lepotik yaurtiteko bitartetxo bat aukeratu gurarik, muker, nagi ta nañazka lez daroe, eta ofegaz, gurutza arindu beañean, astunagotu baño ez dabe egiten. Sentzunak berak eskatzen dau, nai ta ez egin beañ dana, gogoz egitea askozaz obe dala, azkañago, obeto, eta irabazi geyagoz egiten da-ta.

Beraz, girñari apuñ bat eta gurutzari beste apuñ bat emon gurarik dabilena, txiñinka bata *eralean* eta bestea *eraletik* urtenda daroan bultzi edo trenen antzera ibiliko da, eñenka lez eta noz yausiko.

### **Baña egizko kristiñau**

itzez eta egitez izan gura dabenak, gizonaren bidea gurutze-bidea dala ondo dakanak samintasun, neke, ta zoritxañ gustiak, min emon afen, Yesu-Kisto gure Yaunaren yañaitzale izateko gauza beañekoak dirala ezagutuko dau, gurutza gauza ontzat eukiko dau, bere lagunik onena lez izango da, ta naigabe aldian gurutzan yosita gugaitik bizitza emon eban Yaun onari begiratuta, Berak esan zituan itz oneikaz gomutauko da: «Ni nengoan tokian neure otsein zintzoak egon beañ dau» (Yon XII-26). Eta beraz gurutza ontzat artzen dabenean, orduantxe ta Kisto'ren yañaitzale zintsoago dala ezagutuko dau. Orixela egizko kristauen ezaugafia, eta ezaugafi au benetan maite dabenak, maitetasun ori bere egite gustietan agertuko dau, eta obeto gogaratzeko, toki gustietan al bait gurutza geyen ipinten aleginduko da. Maitasun onetatik sortu zan, *Gurutze-Bidea* egiteko oitura edeña, kistañ zintsoen artean, eta eñi Yaungoiko-zaleetan beti zabal egon dana. Ziñeste zintso onen ezaugafi dira ondiño eñi askotan agertzen diran ari landuzko Kalbario edeñak, bere aldian eusko-eñiaren ziñeste sendoaren agerkai edeñ-

ak izan ba'ziran, gaur erdi yausita ikusirik, epelkeriak yo gaituala agertzen dabenak be bai'dira zoritxañez. Gurutz-Bidea'ren onurak ain ederto azaldu zituan Porto-Maurizio'tar Leonardo deunak esaten eban: «Efi bat oitura oneko egin gura ba'dozue, *Gurutz-Bidea* maitatu eragiten alegindu zaitez» Berberau esan geinke sendi eta kristiñau bakoitzagaitik.

### **Gurutz-bidearen onurak.**

*Gurutz-Bidean* Garizima'ko aldian Eleizak daukozan asmoak sendatu egiten ditu; eta bizitza gustirako ikasgai edefak emon be bai.

*Gurutz-Bidea* egiten dogunean gure ziñestea sendatzen dogula esan bearik ez dago; baita otoitz beroagoak, berez lez, gure biotzetik urteten dabela, Gure Yaunak maitetasunez igaro zituan neke ikaragariak gogoratuta. Eta lastasuna non ikasi obeto? Erugetasuna gurutzean, ñeke samiñen artean ikusirik, gure obenen ordañez lastasun egin bea'f dogula, non ikasi obeto?...

### **Baña batez be**

*Gurutz-bidean* ikasten da, zoritxa'f eta nekeak geure onerako izaten dirala. Yaungoikoak gu atsekabepean yaustea lagatzen dauanean, gure biotzeko uga'fa garbitzen dauala ikusiko dogu, suak u'fea eta *limeak* erdoya burdiñari kentzen dautson lez. *Gurutz-bidean* ikusi geinke, bizitzako atsekabe ta gurutzak, gure lenen gurasoen obenak eta geuk egindakoak itxi dauskuzan zauriak osatseko, Yaungoikoak bialtzen dauskuzan osakayak dirala. Eta ez geunkez entzungo birao-usaña dauken itz oneik, saritan entzuten diran lez: ¿Zer egin dot nik ainbeste neke ta atsekabe igaroteko? ¿Zer?... Ez ete dakizu Paul deunak diñonez «Yaunak maite dituanak

zigortzen dituala?» (HEBR. XII-16). Egia da ba, Yaungoikoak ludi onetan maitasunez zigortzen gaituala.

### **Ezaugafirik onena**

ba, Yaunak maite gaituala yakiteko, eroapenez bizitzako gurutzak eroatea da.

Yaunak maitasunez bakafik min emoten dausku. Amiltokira yausten doyan semetxoari, amak, min emongo ete dautson begiratu barik, gogor eltzen dautsonean, ¿maitasunez min emoten dautsola ez ete dakusgu?... Osatebatze gogo'fa egiteko daroanean, maitasunez ez ete dau eroaten?... Ez bea'fen bat egin ez dayen gurasoak eskuetatik semeari aizkorea kentzen dautsonean eta gañera zigortu, maitasunez ez ete dau egiten?

Yaungoikoa be, gure Aita ona dalarik, maitasunez izan ezik bialduko ete leuski-gu atsekaberik?... Ez ba gurutzan zagozanean la'fegi artegatu, zauriak anditu ta ugaritu baño ez dozuz egingo-ta; gogaldu saritan bizitzako bidea zeruko bidea dala, eta zerurako bide baka'fa Gurutze-bidea dala; eta Kempis'ek diñoan lez: «Gizonak gaizkatzeko atsekabeak baño bide obe ta onuratsugarorik izan ba'litz, Kristo'k itzez eta egitez erakutsiko euskula». (II'n. IDAZ. XII)

Gaurko «Zer edo zer» onek Garizima'ko sermoi antza dauko; baña tira... gauza bakoitza bere aldian egoki dala esaten dabe-ta....

GAMA.



# ¡EKAITZA!...

Aize-erauntzia ulu ta ulu  
tantayen adar artean,  
kaskabañaren taka zolia  
etxen inguru gustian,  
turmoi durunda ortze goyetan  
odei baltzez estaldurik,  
iñusturian argi lafia,  
ez dakust ezer besterik.

¡Ekaitza! gauza bildurgafia,  
zoritxañaren iragarle,  
sendi askoren ondamentia  
negar-samiñen ekañle!  
Zoritxañaren aita dalako,  
gomutapen itunagaz,  
neure gogoa urun doakit  
gogorapenik baltzenaz.

Itxasoaren erdian dakust  
arantzalien batela,  
goruntz ta beruntz  
noiz ondatuko  
arautz eskolen antzera;  
Itxasoko ur gazia baño  
negar-malko gaziagoz  
oretutako ogiaz azkar  
igesi etxeruntz datoz;

Baña ekaitzak, bapatez urten  
dautsielako bidera,  
eskuartetik kendu gurautse  
ogia lapur antzera.  
Ogiaz baita euren bizitza,  
sendi gaxoen zoruna,

ekaitz baltzaren eskuan dago...  
¡Auxe bai dala ituna!...

Uin ankeñak bere oinpean  
banaka lotu gura ditu,  
ao zabalaz bertan iruntsi,  
beti-betiko ondatu!...  
Arantzalien ordu lafia,  
lañirik ba-da ludian,  
eskar-eskumaz, goi eta betik  
uin etsayen erdian!...


Uin andi bat, gero beste bat,  
aneika alkañen leyan  
datoz, gaxoak ipiñirikan  
eriotzaldi lañian.  
Ia lerturik gauz ez dirala  
euren biotz bañean  
otoi dagie: Ama, lagundu  
aldi estu ta lañian!...

Malkoz beterik sendikoak be  
dagie otoi sutsua...  
eta bai laster erukitu be  
Goiko Ama lastantsua;  
Beren eskuz lez ateratzen dauz  
eriotz-erpe artetik  
eta gaxoak agertzen dautse  
eskar-ona berpertatik:

"Eskeñak zeuri Ama maitea,  
maiteko zaitut ludian  
Zu Gure Ama eta laguntza  
ekaitz baltzaren erdian..."

GABIREL.

## BIOTZ DAMUA



**E**NARABIL ni, ene Jaunkuoi Zeu maitatzeko  
Zeuk aginduta niri daukazun donokiak  
ez narabil be zeu iraintzetik iges-igeska  
orontzat guztiz bildurgafi dan gaiztokiak.  
Zeuk narabilzu, Zeu ikustiak narabil, Jaunoi,  
gurutza bati josirik eta laidotua,  
Zeu ikustiak ain zauriturik narabil baita  
zakuztalako irain artian il-oztua.

Azkenez ainbat zeu maitasunak igitzen nau ba  
donoki barik Zeu bardin-bardin maitetuten.  
Eta gaiztoki bildurgafirik ezpalitz bere  
zeu iraintzeko bildur-bilduréz, beti ibilten.  
Eztaukozu ba, maite-saria emon bafarik  
neu-biotzian zeu-maitasuna biztuteko  
bardin-bardin ba, biotzez maite zindukedaz nik  
ezer-ezeren itxaropenik ezpaneuko.

Gabriel.



# ZER EDO ZER

## Udabaria dala-fa...

**N** eguko egun otz eta ilun ondoren udabariako egun alayak eldu dira. Ilak zirudien zugatzak ostu ederefz yantzirik agertzen yakuz. Mendi, zelai, aran, latzin, ibaf eta baratzak, orlegiz yantzirik eta pitxi politez apaindurik dakusguz. Txoriak egun argitzeaz batean alaitasunez beteriko abesti maitekoferz geure entzumenak atsegintzen dabez. Eguzkia bera ainbeste edertasan ikustez aspertzeke, luzaroan geure begien aufferan egon ondoren, tamalez dirudi eskutatzen dala, bariro goizean al bait lastefen bere arpegi disdiratsuz lufa poztuteko. Bere izpiz laztanduta, txoifxoif ariartetik ikotika doyan efekaxoak zidaferzkoa dirudi... ¡Udabaria da!.. Itxaropenez beteko urte aroa! Amaika biotz alaitzen dituana! Eta alaitasuna itxaropena da, bizitza da, gure bizitzako samin - garatzak gozatzen dituan osakai bikaña! Udabariako alaitasuna; kistaf bizitzaren irudi bizia da, itxaropen eta alaitasun bako kistaf bizitzarik ezin leiteke izan-da.

## Auxe dala-fa

Eleiza Ama'k, udabari aldian, gure bio-

tzak pozez eta itxaropenez betetako gayak gomutarazten daukuz. Kisto gure Yaunaren Befbizkunde goragaña, gure zifneftearen eustazpia, gure itxaropenaren sustafa, kistafon biotza pozez beteten dabben yazokun edereña. Eleiza Amak Kisto Gure Yaunaren gurendaz alaitu, poztu gaitela difnosku. Eta onez gañera urte aro begiko onetan, gure Ama maitearen ila be ospatzen dau, loren ila, Ama gustiz Garbiari opaldua. Eta Ama gomutaz seme ona poztuten ba-da, beste ainbeste ez ete dogu egin beaf guk aldi onetan? Amarik bikañaena, maitegañaena, eta gure beaf-izan gustietan guri laguntzeko altasun eta gurari bizia daukona izanik, ez ete gara poztu beaf, ez ete dogu geure biotza itxopenezko loraz beteko? Eta maitasunezko lorarik zamufernak ez ete dautsoguz eskifniko?

Aldi onetan ba, gure gogoak itxaropenezko loraz apaindu beaf ditugu, gure biotz adimenak, eguzki argi-beroz sendotu, ez baña loratan gelditzeko, loren bizitza labuña izan oi da-ta; loren ondoren alort, igali ugariak emoteko baño.

Eta ofetarako argia beafekoa dan lez, gure biotzak igali onak emongo ba'ditu alaitasuna be beafekoa dau.

## Alaitasuna bai

Baña ez edozelakoa. Alaitasunaz ba, txindiaz gertatzen dana yazo oi da. Gu-zufezkoa ala egizkoa izan leiteke. Eta zoritxarez guzufezko alaitasuna, azaletiko alaitasuna, ugari ikusten da, bafengoa, egizkoa bariz, ura baño urriago. Gurealdi onetan ba, inoz baño alaitasun egafi bi-ziagoa ikusten da. Eta egiñean be benetako alaitasunik ez dabela olan dabizenak agertzen dauskue. Inoz ez dira asetzen eta inoz asetzen ez daben ura egafia kentzeko ez da gai. Yolas, yan -edan eta edozelan ibiltean poza idoro gura dabe-ta orixe ezin dana da. Gorputzean bakafik sustafa dauken alaitasunak gure biotza ezin leike asetu, yolas zaletasuna ugaritu baño. Eta ortxe dago gure aldian ikusten dogun yolas-zaletasunaren sustafa. Orain yolas bat, eta aspertzen diranean beste bat, eta beti yolas bariak asmau eziñik. Au ikusirik umeakaz gogoratzen naz. Yolas barik ezin leitekez bizi, eta yolasik aldatu barik be ezin egon; danakaz asper-tzen dira ta beti gauza bafi bila dakusguz. Eta *ume nausiei* be auxe gertatzen yake. Eta yolasok beti onak izango balira!.. Eta onak diranean be, neufia zaintzen ez dabelako, egoki eta osasunerako bearekoa dan gauza bat euren buruaren kalteko biurtzen dabe. Yolas egitea beareko gauza da, baña neufiz egin ezik bapez baño kaltegarriagoa. Eta gorputza sendatzeko alegintzen dan artean, gizonak gogoan euki beaf ditu bere adimen eta biotza zuzentzeko artu beaf dituan bideak, bestela ostiko edefak emon, eta ukabilkada bil-dufgafiak emoten nausi izan areñ, asto indartsu baten antza baño ez leuke euki-ko. Eta gizonak yolasean be *gizon* izan beaf dau. Gizon sendo ta indartsuak erian aurrepenerako bearekoak dira, baña in-

daraz bakafik gizarteak ezin leike iraun. Ankak, eta ukabilak ez eze

## Adimena be landu egin beaf da,

Adimena egiz bakafik asetu leike, eta egia ezagutu eta aztertzen gizonak nai-ko zeregiñik dauko. Bere betiko zoriona lortuko ba'dau yakin beaf dituan egi zeru-tarez gañera, bakoitzak bere bizibide eta lanetan egunerik egunera gauzak obeto ikasten alegindu ba'litz, lanerako poz geyago eta zorionsuago izango litzake, eta yolasetan neufia obeto zaindu be bai. Beste ainbeste biotza ta gurariak sendatu ta zuzentzeaz esan geinke. Adimen argia eukiañen, biotza mendu barik daukana, abere azkafen antz geyago eukiko dau, gizonena baño. Au egiten alegindu ezkerobenetako alaitasuna berez lez gure biotzean sortuko da, alaitasun egizko eta iraunkoña, bafendik sortzen dana bakafik izan leiteke-ta.

## Eta zuzen ez dabilenak

Inoiz eta inon be egizko alaitasunik ezin leike idoro. Yo batera nai bestera, bere girñak lokañiz lotuta lez eukiko dabe, eta gogoko azkatasunik ez dagon tokitik alaitasunak iges egiten dau. Alaitasuna gogoko nasaitasun eta azkatasuna da, eta zuzen ez dabilena, girñaren lokafipean dago.

Egizale dan adimena, eta zuzenzale dan biotza berez lez alayak izan oi dira.

Eta orixe da egin - egiñean, batez be udabafian Eleiz Amak eskatzen dauskuna. Eguzkiak bere argiz izate gustiak argitu oi dituan lez, Egiaren argitasunak gure adimen txoko gustiak argitzea nai dau; eta eguzkiak, bere berroz, izatea narotuten daun lez; gure biotzak Yaungoiko eta la-gun geidearen maitasun zintzoaz bertzea be bai. Ori barik egizko alaitasunik

eta bařengo alaitasun iraunkořik iřnoz be ez dogu izango.

### **Batez be**

Oriřa iřa onetan berariz poztu beař gara, geure Amaren iřa dalako. Eleizak Berari osoan eskintzen dautso, eta guk be, seme zintso lez, geure biotzeko lorarik samuřenak eskiņi beař dautsoguz. Izate gustiak bera aguřtzen dabela dirudi eta guk izate

gustien ikasbide edeř oneri yařaituaz, bere Seme Yaungoikoa-ren agindupean biziaz, egite onen lorarik edeřenak eskiņi dayoguzan, Eleizak abestuten daben lez, gure alaitasunaren ituři lez Ama samur au da - ta.

Alayak izan ba, yolas egin, poztu, ba-  
řa Goiko Yaunaz aztu barik...

GAMA

# ZINTZO YOKATU!....

Yaungoiko zaleak  
erbeste onetan,  
egiaren aldez  
dabiltzazanak,  
«etsai yasarpean  
ibiliko dira;»  
Paul deunaren bidez (1)  
diño Goteunak.  
Bizitza onetan  
ez da ba besterik  
egi ta guzuran  
gudea baño;  
iraungo dabena  
gizaldi orotan  
toki gustietan  
azkeneraño.

Gudaritza da ba  
kistañon bizitza,  
txeñenen kaltezko  
bufuka latza,  
samintasun latzez  
garaztuten dauna  
zintsoa dunaren  
kistañ biotza.  
Etsayak ugari  
dauz laguntzaleak,  
bere aldez argi  
yokatu nairik,  
baita otso asko

ardi nafuakaz  
maltzurkeri baltza  
estaldu nairik.

Auxe da onentzat  
tamalgariena,  
auxe da benetan  
negafarria;  
gotzon yantziagaz  
txeñena agertu  
ta kistañ on asko  
atzipetzea.  
Argi eta ilunan  
arteko bufukan  
izan leike gauza  
samiñagorik,  
argia ta iluna  
nastutea baño  
ikusi ez daigun  
bide argirik?  
Eta zoritxafez  
auxe geriatzen da  
saritan bufuka  
etenbakoan:  
girñaren aldetik  
asko yarten dira  
egiaren aldez  
diralakoan.

Eta naspiltzen da  
kistañen gogoa,  
tamalez beterik

(1) 2 Tim. 11-16.



*auxe ikustean:  
ikusi eziña,  
gofoto galgari,  
maitasunik eza  
kistañ artean.  
Eta maitasunik  
ez daben kistaña,  
zer da zugatz adar  
igara baño?*

*Sutarako gauza  
izango dana bai,  
kistañ egizko ez,  
ez egundaño!...*

\* \* \*

*Zufkiro ibili  
gaitezan ba beti;  
biotza goyan da  
asmo garbiak;  
gure biotzetan  
dis-dis egin dayen  
gudal'd'an beti  
goiko argiak.*

*Etsai galgarien  
gofoto zitalak  
goituteko beti,  
adoretsuak;  
gizon lez yokatu  
Kisto'n gudari lez,  
izan gaizan beti,  
kistañ zintzoak.  
Ez bildurik izan  
txeñen gaiztoaren  
gofoto baltzari,  
bizitz aldian;  
Kisto buru dala  
danak azpiratu  
ta donoki bidez  
yoan gaitean...*

# ZER EDO ZER

## Umeak eta kristiñau-ikasbidea

### Umeak gizon eta gizonak ume

**U**metasunari dagokion iribaŕe samuŕa, ta begirakun argi ta ez-titsua, gure aldi onetan, gero ta uŕiago ikusten dalako, bein baño saŕiagotan Selgas idazle ospetsuak esandako itz oneik entzuten dira: *Oin ia umerik ez dago...* Esakun au itzez-itzez begiratu ezkerok, ontzat artu ez aŕen, egiaren ondoan dabiŕela autortu beafean aurkitzen gara, *gizontxo* diran ume geyegi basteŕetan edonok ikusten dituz-ta.

Eta osterak, gizonztat esten diran artean, ainbeste umekeri ikusi, benetako gizatasunaren yaube diran ain gitxi, eta geyenak umeak baño aldakofago dirala ikusirik, Youffroy idazleagaz gustiok bein baño saŕiagotan esaten dogu: *Oin gizonik ez dago...*! Eta ziñestekoa da izan be, ain *gizon* gitxi gizonen artean ikusi ezkerok.

Eta esakun oneik batak besteagaz zer ikusirik ez daukela begitandu aŕen, alkaŕen antz andia dauke. Umerik ez dago, umeari ume izateko astirik be ez yakela-

ko emoten, eta gizonik ez dago ume al-dian gizonkeriak ikasi dituan umea, giza-aldian ume -aldakof biurtzen dalako. Umeari gizon izaten ume al-dian irakatsi beaf yako, baña gizonkeri barik, gizonak umearen zintzotasuna zaindu beaf dau baña umekeri barik. Eta ortxe dago loŕa... Eta au olan dan ezkerok, lanik onurakofena umeakaz egiten dana izango dala esan bearik ez dago.

### Askori entzuten yake:

«Umeakaz gauza onik ezin leike egin! Gauza bat buruan sartuko ba'yake, eun bider esan beaŕa dago, besau-eziñak, biuŕiak dira, umeakaz yardutea alpeŕeko lana da, ta abaf.» Ofek bariz epebakotasun, eta alpeŕkeriak asmautako itzak dira. Umeakaz eroapen andia beaf da, baña gizonakaz andiagoa. Gogoko ez yakon gauza bat buruan eta biotzean, eŕezago aftu eragingo dautsogu umeai gizonai baño. Umeak umekeri txikiak eukiten dabez, baña gizonak umekeri andiak... Umeakaz gauza onik ezin daikenak, nagosiekaz gitxiago egingo dau.

Umearen biotza ta adimena landutea ba,

## Lanik onuratsuenta

iraunkořena eta ondorengo obedunena da. Nagosien adimenean eta biotzean ereiten dan azia, safitan luř gogoř eta girñaren arantzartean yausten da, ta yakiña! safitan alpeřik galdu.

Baņa umearen adimen-biotzak girñaren laño baltzez ondiño lausotu barik dagozako, egiaren argiak antzikuř (izpiũ) baten lez argi egiten dau. Umearen biotza luř biguna da, apatza, oben galgařiak kutsutu bakoa, girñaren sukafak gogořtu bakoa. Beraz eřezago lantzen dana, eta beďař txafik sořtu ba'da be, neke andi barik susterkatzekoa izango da. Auxe dala-ta gizařtea, efiak zuzentzeko umeetatik asi beař dala ao batez esaten da, naiz-ta lan egin beař danean, lan onurakoř ofetarako gertu dagozanak gitxi izan. Auxe dala-ta lan oneri gogoz ekin beař geunskio, Kistař - ikastea irakasteko beařtuta gagozan gustiok.

Baņa batez be ekin beař dautsogu, gure Yaunak bere ikasbidez orixe irakatsi dauskulako. Bere ingurutik umeak kendu gurarik ebiltzan baten, ikasleai agiraka egin eta esan eutsen:

**Ixi umeřtuok Nigana eltzen** (Mark, X, 40)  
maitekiro besartetu ta onesten zituan. Umeak ba Yosu-Kisto'ren kutunak dira maitasunik samuřena eurai agertu eutsen, euren eřugetasuna galdu eragiteko zos-tořak ipinten eutsezenen kaltez zemakuntza gogořak iragaři zituan.

Au olan dalarik, guk bere yařatzaře garenok, landara samuř oneik ardurarik andienaz, maitasunik samuřenaz ez ete doguz zaindu beař? Euren biořtxoetan ainbeste maite dituan Yaunaren irakatsi edeřak eta beařekoak, ardurarik andienaz eraiten ez ete gara alegindu beař? Ez ete da auxe geure eta gurasoen beařkunik

nagosiena? Auxe da Kisto'ren gurari bizia, Eleiza Amaren agindu bikaña eta Aita santuak safitan gogoratu eragiten dauzkuen beařkuna.

## XI'n Pio'ren itzak.

Italia'ko agintariak, sentzunak eskatzen dabean lez, ikastoletan gurutzaren irudia ipiņi ta kristiņau ikasbidea ondo irakasteko lege goragaři bat emon dabe. Eta Gure Aita Deun maite XI'n Pio'k, oraintsu egin dabean itzaldi baten, erabagi oneik pozez bere biotza betetan ebela agertu eban, Yosu'ren kutunak, diran umeak, bere irakatsi goitařak ikasteko bideak eřaztuta idoroko dabezalako. Eta onen ondoren dei egiten dautse yaupari (abade) ta sendietako gurasoei, onetarako dauken esku-bide ta biařkuna ardura andiz zaintzeko, «gauzarik gařantzitsuena da ba, eta beařkun au betetatik zinzilika lez dago, ez bakafik Yaunaren abintzak dituan Eleizaren zoriaren zati andiena, baita gaur eraindakoia batu beař dabean sendi, gizarte ta eřien zoria be». (Consist. secr. Epala'ren 24'an, 1924).

## Yaungoiko-Zale'k

Eleizaren gurari ta aginduak zintsoro betetako, aldiskingi ta idazti bidez Kristiņau-Ikasbidea gizonen artean zabaltzen aleginduaz, umeak ez ditu aiztuten, eta maitekiro Yaunaren itzak irakasle ta gurasoai zuzentzen dautsez: «Ixi umeřtuak Nigana eltzen», egi zerutařak eta Yaunaren maitasuna euron biotzetan erein beař dogu - ta. Ofetarako urtero lez dei egiten dautse aurten Ařatie'ko umeai, gertatzen diardun sariketara etorteko.

Ofetarako sariak eskintzen dautsez, ez saria irabazteařen Kristiņau-Ikasbidea ikasi dayen, Kristiņau-Ikasbidea ondoen ikasten alegintzen diranak saritzaeřen baño.

Olantxe, bide bakaña da-ta, Kristiñau-Ikasbidearen bidez, gizonkeri bako umeak eta umekeri bako gizonak ugaritu gura ditu.

### Lan edef onetan

laguntzale asko ba'geunkoz, aldi gitxi bañu elitzakez entzungo len aitatu ditugun egi samiñak: *Oin ia umerik ez dago! Gizonik ez dago ta abaf.....*

Ludi au baratz andi bat da. Umeak baratz au apaintzen daben lorak dira. Gizonak lora onein zaintzaleak. Umeak aldia baño lenago gizonkerietan asten ba'dira, igertuta gelditzen dira. Eta lora igeña gauza itxusia da! Gizonak bañiz umekeri-zale biurtu ezkerro, zaintzale izan beañean, lorak ondatzeko baño ez dira gauza izango. Eta gauza nega'garñagorik zer?..

Ba, Kristiñau - Ikasbidea ofetarakoxe da; umeai gizonen sendotasuna erakusteko eta gizonai umeen zintzotasun eta eruetasuna...



## Venite ad Me...

Gora ta gora, Yosu'ren Biotz  
maitagañi ta kutuna,  
gure maitasun gartsu samuñ  
baita guretzat zoruna.

Labá gorian sua bero da,  
baita bero eguzkia,  
askozaz baña beroago da  
Yosu'ren Biotz maitea.

Sua ekañten luferatu da,  
maitasun gafez biotzak  
gañtu nai ditu toki danetan  
obendun biotz ilotzak.

Bere dei samuñ zoragañia  
ludi gustian zabaldu  
gura dau eta maitasun-gafez  
giza-biotzak kiskaldu.

«Biotz ilunak, neure ondora  
etoñi, Neu naz Argia;  
oben izotzez inguratuak  
neugan daurki pozgañia.

«Naigabepean samintasunez  
inguraturik ba'zagoz,

bilduñik barik zatoz Neugana  
maitasun nayeñ ba'zagoz.

«Argalkeriak yota ba'zagoz  
etsayeñ inguraturik,  
zatoz Neugana, Bizitza Neu naz  
ez izan gizon bilduñik.

«Oben estuntzuz zure biotza  
inguraturik ba'dozu,  
neure Biotzan maitasun gafeñ  
lasteñ urtuko dituzu.

«Bideñti gaxo, bidekatua  
ba'zara ludi onetan,  
Zatoz Neugana, Bidea Neu naz  
bizitzako ilunpetan.

«Yoran-yoraneñ maite ba'dozu  
goiko ta beko bizitza,  
zatoz Neugana, maitetasuneñ  
zeuretzat Neure Biotza.

«Ni naz Bidea, zure bizitza  
Argi, Laguna bidean,  
Zure zoruna, maitetasuna  
bizitz ontan ta bestean...»

# ZER EDO ZER

## Umeak eta kristiñau-ikasbidea

**Itxi umetxoak Nigana eltzen.** Mark, X-14).

**U**meak berenez, ume diran artean, argi zaleak dira, yakingura utsak, on zaleak be bai eta, euliak ezтира lez, eurak maite dituanagana besoak zabalik yoaten dira, eta, oñez gañera zuzen-zaleak diralako, zio barik zigortu, edo irabazi barik euren lagunen bat saritzen badozue, berealaxe euren biotzean soñtzen yaken asaírea agertuko dautzue.

Auxe dala-ta edo, Gure Yaun maitea Egi utsa, Ontasun eta Zuzentza berbera dalako, Beragana, egafiduna itufi garbira lez, yoaten ziran. Yosuk poz-pozik aritzen zituan, eta agiraka egin be bai úrerratzea galerazo gura eutsenai, esanaz: «Itxi umetxuok Nigana eltzen, eta ez galerazo, Yaungoikoaren bakaldefía olakoxeena da-ta».

### Baña, baña...

Oñez gañera berekoitxoak be bai dira. Au egi argia da. Euren egi-zaletasuna, on eta zuzentza-zaletasun ori saíitan berekoikeriaz nastuta dabilela ezin ukatu leike. Yatoñizko obenaren azi galgafia euren

biotzean daroe. Eta azi txar onek saíitan bere lorak emoten ditu. Eta igaliak be bai. Olakorik gertatzen danean, askori entzuten yake: «Oñez umeok *diabruak* dozuz. Gaiztakerirako baño ez dira gauza..!» Eta ori ez da egia.

Beste batsuk osterá, umeak *aingeru* utsak dirala esan oi dabe. Eta gaiztakeritxoak bat edo beste egin arén, zuzentzen alegindu beañean, euren auñean esaten dakie: Zer egingo dautsozu ba, oin *aingeruak* dira-ta.

Oñei auxe erantzun leikioe: Diabruak ba dira be, *besteak* lakoak ez dira, *aingerutu* leikezanak dira-ta. Eta *aingeruak* izan arén eurenaz urteten ez laga, bestela diabrutu egin leitekez-eta.

Zuzenago egoan au idatzi ebana: *Umea izatea edenez kutsutu ta egoak mostutako aingerua da.*

Egia itz oñeitan dago. Lengo itzok, zuzentzen nekatu gura ez dabenen alperkeriarenak dira.

### Azi txafia, umeen biotzean ito

Eta aingeru danez, dagokiozan egoak ezafi. Orixe da umeak mendu ta zuzen-

tzen diarduenen zeregin gustia. Itz gitxi-tan esaten da, baña lan luze ta neketsua da. Orixe da guraso ta irakasleen zeregi-ña. Eta ori egin ezik, guraso ta irakasle izenik ez dabe *merezi*. Eta orain batez be, ainbeste arriskuz eta etsayez inguraturik bizi diran aldi onetan.

### Umearen etsayak.

Umeak bere baruko argalkeriz eta gir-ñaz daukezan galbideai begiratu barik, bere ingurura bakarik begiratu daigun. ¡Erukariak!.. Ipaf aizeak alde batetik, eta ego aizeak bestetik lufera eratz, ala tximuftu ta igertuteko afiskuan dagozan lora samufak dirudie...! Sañitan lufera er- tzi ta sustañoak bakarik osorik geratzen yakez; beste askotan ego aize galgafiak igertuta itxiten ditu, eta besterik ezean be, lora ofiak banaka-banaka ufatu, ta soil-soil, lora landaren antzera, arantza- txoakaz bakarik gelditzen dira... ¡Au bai tamalgafia!....

### Guraso itsuaki.... begiral....

Zenbat afisku artean dabilen zuen se- metxo. *Modak* dirala, yantzi itxusiak, irudi nabarmenak, abesti zatafak, irakuf- gai zikiñak, zine ondatzaleak, birao nas- kagafiak eta abaf, zuen semeen biotzetara sentzunen bidez eltzen dirala. Gauñ etsa- yak umeen biotzetan azi txafak ereiteko, gurasoak lotan dagozan aldia bakarik ez dau aukeratzen, gurasoen begien afean be bai, beaf ba - da eurak gaiztakeriko tokietara zine ta abaf eroaten dabez, eta au itsukeri baltza ba - da, izen bako gaiz- takeria da batsuk egiten dabena; birao ta itz zikiñak euren semeen afean esan eta semeen biotzak obenez usteldu!.. Orelako gurasoak diabru laguntzalerik ez dabe beaf, semeak betiko ondatzeko eurak be

naiko dira. Orelakoentzat epai gogofa Yaunak berak emon eban.

### Yaunaren itzak bildufgariak.

Gaiztakeriko bidea umeai irakasten dautsenen kaltez ara emen Yosu otzanak esandako itz gomutagariak:

«*Onelako txiki bat oben-bidean ipin- ten dabeneri, obe litzakio, astoak era- biltzen dabene efotafia zamatik lotu eta itxaso ondañera yaurtiko ba'lebe*». (Mat. XVIII-6).

Epai (sententzi) gogofau, Zuzentza bera dan Yaun onak emona dala ez aitzu. ¡Ume efukariak gurasoen gaiztakeriz gal- tzen diranak! Baña guraso efukariagoak epai onen azpian yausten ba'dira!

### Umearen etsairik andienak... gurasoak

Sañitan dirala esango ba'genduke ba, egi aundi bat baño ez genduke esango. Asko dira bai zorionez, umeak zuzen as- ten alegintzen diranak. Baña onetan itxi- keru izugafia dagola ikusten ez dabena, itsusamara izango litzake.

Gauñ, dirua irabazteko gauza ez dana, aintzat be askok ez dabe artzen. Geyenen ames bakafa al bait diru geyen irabazteko bidean semeak ipintea da. Txindiak bera- ri begira gizostea ipinteko indaf andia dauko. Txindiak aña aizkide inok be ez dauko, eta diruari betozkoz begiratzen dautsona ezagutzen ez da efez. Eta ofe- xek galtzen gaitu!..

*Eskolak* ikasi bai, al bait geyen, baña biotza menduteko ardura gitxi... eta gero, sañitan mutilak *listoegiak* urten dabela-ta, negafa etxean...

Orixe da Kistañ-Ikasbidebako eskolen ondorena. Semea galdu ta dirurik irabazi ez. Ona da bizibideari begiratzea; baña *bizibide zuzenari* begiratzea obe. Ume ikastunak astea ez da naikoa. Onetan *ba-*



*karrik* alegintzen diran gurasoak, euren umeen etsairik andienak dira. Ikastunak izatea ona da, baña oñez gañera zintzo ta oitura onetakoak astea da beař - beařkoa. Eta au, Kristiñau-ikasbidea biotzerañ saftzen ezpayake, ezin leiken gauza da. Listo eta ona danean umea ego biko aingerua da. *Listoa* bakarik egiten ba' dabe, txori ego bakafa lez oker ibiliko da.

Eta *gaurko gatxa* auxe dala esango geunke.

### **Mutiko baten erantzun edefa.**

Mutiko batek bere zintzotasun eta lanez ikastaro baten iru sari irabazi zituan. Ez zan gitxiagorako be ta, pozak zorazten etxeratu zan: Atara zituan sariak aitari erakutsi eutsozanean, onek esan eutson: «Gramatika ta zenbakizti edo arimetikan atera dokan sariaz pozik ñagok, baña Kristiñau - ikasbidean atara dokanak zertarako balio yok?.. Oregaz aberatz izaten ez dok ikasiko»... Aitak baño senzun geyago eukon semeak erantzun eutson: «Egia da Aita, Kristiñau-ikasbideak bizitz onetan aberats izaten ez daust irakatsiko, baña betikotasunean aberats iza-

ten bai, eta arako, beše gauza gustiok, gitxi balioko dauste». ¡Erantzun au buruan sartuta ta biotzean yosita baleukie guraso askok, gertatzen diran gauza asko ez litzakez gertatuko?..

*Listoak* baño *onak* beařago dira bas-  
tefetan!

Eta amaitzeko,

### **Utebako erantzuna**

X'gn. Pio Aita Santua ikertzen yoan zan andra andiki batek auxe itandu eutson:

—Aita Deuna; Eleizaren alde zer egin neike nik? Eta Aita benetan deunak bapatean uste ez eban erantzuna emon eutson:

### **Kristiñau-ikasbidea irakatsi...**

Auxe da Yaungoiko Zalek be umeen yai eta gertatzen diarduen sariketaz egin gura dauana.

Kristiñau-ikasbidea irakatsi, eta ondo irakatsi be, azal eta mamin, Yaungoikoak agintzen daben lez.....

GAMA.

# OKARANAK (1)

Bein ama on bat bere lau seme-gaz aitaita ikertzera yoan zan. Baratz ederean aurkitu eben, eta zerbait eskiñi gurarik, ufe margodun eta afautza lakoxe lau okaran, elduta egozan bakarak, mats ofi baten eskeñi eutsezan.

Eta yolasez esan eutsen.

—Ia lau okaranak, zatitu barik bost, lagunen arte banantzen daki-zuen.

Neskato bietetik andiena zan Lonorek esan eban. —Neuk egingo dot baña baldintza (kondiziño) bategaz; zenbaki bakoti ta bikotiak neuk nai ditudan eran nastatzekotan.

Eta lau okaranak arturik esan eban:

—Nire aiztea neu eta okaran bat iru gara.

Nire neba bi ta okaran bat iru dira. Okaran bi ta ama be iru. Era onetan banandu ezkerro zatirik ez da geratzen.

Lonor'en neba biak eta aitzia banantze onegaz arituta gelditu ziran; baña ama alabearen bizkoitasunaz baño ain biotz ona agertu ebalako geyago pozturik, seme bakoitzak okaran bat artzea gura izan eban.

Orez gañera aitaitak be, Lonor'eri lora txorta edera emon eutson.

Ba, esan eban, nire Lonore'n banantze zolia bere adimen zuraren agefkai ba'da, bere biotz edertasuna obeto agertzen dau.

Ludian begiko da  
adimen zolia,  
baña begikoago  
biotz on garbia,

# ZER EDO ZER

## Gurasoak eta kristiñau-ikasbidea

### Egi tamalgafia ta gafatza.

Kristiñau - Ikasbidea euren semeai irakasteko guraso askok dauken itxikeria gauzarik lotsagafienetarikoa da. Au egi tamalgafi ta gafatza da, baña egi garbia.

Eta itxikeri ta ardurarik ez onetatik sortzen diran kalteak zerbait susmatzeko buru-auste andirik ez da beaf. Eta etsayak geldi ba'legoz gaitz erdi. Baña etsayak gasteen biotzak usteltzeko iñoz baño alegin geyago egiten dabela edonok ikusi leikena da, eta nori ez samindu biotza onen ondorenak gogoratuta?..

### Aize kaltegafiak!..

Gure biotzak gorputzeko bizitzari eutsiteko aize garbia beaf daben lez, gogoko bizitza mardula zaintzeko egi ta ontasunezko aizea beafekoa da.

Eta gaur egunean, zoritxañez, gaiztakeri, guzur eta lizunkerizko aize zatañez umeen eta nagosien gogoko bizitza beinguratuta dago. Zer egin?.. Aize kaltegafi onetatik gustiz aldentzea ez da safi askotan efeza izango, baña gexoari dagokiozan osagafiak aurkitu geinkez.

Toki gustietan ez dira afisku bardiñak, baña gauñ, efi ta baseñien artean dagon artu-emonaz, osakai oneik iñoz baño beafekoagoak dira.

### Eguzki begiko landarak

erne diran tokian, ondo zainduta, mardul iraun afen, toki aretatik toki añubera aldatzen ba'dira, ezez erkindu eta galtzen dira. Berberau gure menditarteko gaste askori gertatzen yake.

Etxeko ikasbide onez eta arduraz onkote ta zintsorik asten dira. Bertan yafaitu ezkerio biotzez euren asaben antzera mardul iraungo leukie, araño eltzen diran aize txafai eutsiteko lain bizitasun eta sendotasun dabelako.

Baña toki añubera aldatzen ba'da, uri andietara yatsi, ta bertako oitura txaf, birao ta lizunkerizko aizeai eutsiteko, eta ziñesteen kaltez entzun beafko dituan tenelkeriei erantzuteko lain Kristiñau ikasbide ezpadaki, toki añubera aldatutako landara samufari gertatzen yakona, gertauko yako. Aldi gitxian erkindu, eta gogoko zintsotasuna galdu.

## Ori zergaitik gertatzen da?

Geyenez bere biotza buruka ta ziltzaldi areitarako gertau barik dagoalako. Beaf dan bestean Kistiñau ikasbidea biotzeraño ez yakolako eldu. Kristiñau ikasbi-dearen mamiña ondo ez ezagutzeafen. Eguzki - begian landara ona izango zan; baña etsai arterako sendotasunik ez.

Basefian on izateko beaf ba-da naiko sendotasun euken, baña urietako oitura txafen aize otzak tximuftuta itxi dituz.

Eta orixe da Kristiñau-ikasbidea biotzeraño eldu eragiten alegindu ezik itxaron geinkena. Kristiñauak bai izango ditugu, Bateo deuna artu dabelako, baña safi askotan igali bako zugatzak, edo beintzat kristiñau argalak, lagunak egin leikioen ifibañean aizeaz luña yota gelditzen diranak! Eta amaikatxo olango ezagutzen dogu!..

## Kristiñau ikasbidea

ondo irakasteko ardura gitxi eukitetik orixe etofтен da. Ofetarako bariz, *ondo* irakasteko, euren malara yatsi beaf gar-eala esan beafik ez dago. Bestela *ponografoak* ugaritu baño ez doguz egingo. Irakasten daben gustiak, auxe gogoan euki beaf dabe: *Umeak eskutik erabilteko, nagosiak apuf bat makuftuta ibili beaf dabela*. Umeakaz ume egin beaf. Ez da beste biderik...

## Eztabaidak alde batera itxi eta lan... Yaungoikoafen bakafik

Bestela astia galdu baño ez dogu egingo. Eta lan gogoz eginda be asti geyegirik ez dogu izango.

Gaur basefietan be, zoritxarez, ziñeste epelkeria zabalduetz doa. Urietako aize ta oitura lizunak izgorena lez gora ta gora doaz, ta lizunkerizko lokatzen txipristiñak eta zerbait geyago be basefirik bas-

tefenetara eltzen dira. Ta zer egin?.. Besoak idunduta, tamalez begiratu?.. Eztabaidan astia galdu? Alpefeko lana dala-ta, alde batera itxi?.. ¡Ez orixe!!... Geure beafkuna, naiz atsekabe asko irunsi beaf, ondo betetako alkaftu gaitez, Kristo'ren etsayari arpegi emon dayogun, eta Paul deunak diñon lez, «ez itxi gaizta-keriari garaitzen, ontasunaz gaiztakeria azpiratu baño». (Ad Rom. XII-21). Auxe da *Yaungoiko Zale*'koak egin beaf doguna, Yaungoikoafen bakafik!..

Eta onetantxe gurasoak alegindu beaf dira

## Gurasoen beafkunik aztunena

auxe da-ta. Eta beraz beafkun edo *obligaziño au ez betetea, gurasoak semeen kaltez egin leikien obenik andiena*.

Gotzain yakintsu baten itzak entzun daiguzan:

«Kristiñau - lkasbidea irakasteko nagikeri ta ardurabakokeria, gurasoak semeen kaltez egin leikien obenik andiena da, eta bardin esan geinke ugazabak bere menpeko ta mofoyetzaz, Paul deunak itz oneitan diñoskunez: *Norbait bere menpeko ta mofoyetzaz arduratzen ezpada, ziñestea ukatu dau eta ziñestebakoa baño txafago da*». (I Kor. II-12) Beraz Kristiñau-lkasbidea irakasteko itxia dan sendiko burua Yaunaren aizkidetasunean bizitea eta zeruratzea, ziñeste katolikotaña ukatu dabena zeruratzea bestean gauza eziña da, eta ondiño ziñesterik euki ez dabena baño be gaiztuago da». (Torras eta Bages, Pastorales, tom. I 250'go ofian).

## Eta auxe da Eleiza Ama Deunak agintzen dauana

Bere Legediaren 1335'n canon edo arauan diño:



«Ez bakañik gurasoak eta gurasoen to-  
kian dagozanak baita ugazaba ta aitabi-  
txiak be, euren menpeko eta ardurapeko  
gustiak Kristiñau Ikasbidea ikasi dayen  
ardurea eukiteko beařkun edo obligazi-  
ñoaz lotuta dagoz».

Agindu au *ondo* beteko ba'litz....!

### **Alan da be askori**

buruan ezin sartu yake kristiñau-ikasbi-  
dearen beařizan eta edeřtasuna, eta one-  
tan ardura gitxi ipinten dabe. Bai ba, kris-  
tiñau-ikasbidea gauza zaratatsua ez da,  
apala ta ixila baño. Eta ařokeria gauza  
zaratatsu zalea da-ta, bastefetan ařo asko  
dabilelako, azal eta yantzi apalaz ager-  
tzen dana ez dabe aintzat ařtzen. Eta  
Kristiñau ikasbidea umeen gauzatzat ař-  
tzen dabe. ¡Itsu erukařiak! ¡Gau txorien  
antzera eguzkiaren edeřtasunak ezin da-  
bez ikusi, ařokeriak begiak lausotzen dau-  
tsiez eta!

Ostera be dagon mundua egongo da!..  
Diñogun au egiztuteko ara.

### **Izlari ospetsu bateri gertafua.**

Paris'go eleiza baten itzaldi batzuk egi-  
teko dei egin eutsen eta asmorik onenaz,  
kristiñau ikasbidea azaltzea otu yakon.  
Eta lenengo itzaldian, eldu ziran entzule

ugariaei asmo au agertu eutsen. Ori nai-  
ko izan zan, emen esaten daben lez, entzu-  
le askok *marchando* egiteko. Uřengo  
egunetik uts andia oaftu eban eta izlaria  
ez zan *leloen* erikoa ta, egun atan iragafi  
eban, ziñesteko egi sakonen aldez (apolo-  
gética antzera) eta ziñesteen kaltezko gu-  
zuřai erantzuten itzaldiak izango zirala,  
eta auxe naiko izan zan uřengo egunetan  
eleizea betean entzuleak etořteko.

Izlariak bařiz lenengo egunean aitatu  
eban gayari ekin eutson: Kristiñau ikasbi-  
dea edeřto azaltzen yařaitu eban, eta iñok  
igafi bez, gustiak pozik.

Emen agertzen da izenari ta azalari be-  
giratzen dautsenak ugari dirala bastefetan.

### **Yaunaren lagunzařaz**

ekin dayogun ba lan edeř oneri, Kristiñau  
Ikasbidea irakasteari ta zabaltzeari, yaki-  
terik beařekoena, garaiyena, gizadia zer-  
uratu leiken bakařa auxe da-ta.

Guzuřaren aurka egia zabaldu, lizun-  
keriaren aurka oitura onak, kistař landaren  
inguruko aizea, sariketa, yai, eta alegin  
gustiaz obetuten alegindu, geure anayen  
ziñeste landarea, mardul azi, sendo iraun  
eta onbideko igali edeřak emon daizan...

GAMA.



## ¡Gora biotzak!...

Nora zoaz bidezti  
ain itun-itun?  
Norutz ain yoranez  
beti oldostun?  
Atsekabe gañatzak  
zure biotza,  
yo dabelako iguin  
dozu bizitza?  
Pozgañirik zuretzat  
ez da bidean?  
Ez daurkizu iñon be  
pozik ludian?  
Nora bidezti  
ain itun-itun?  
Noruntz ain yoranez  
beti oldostun?...

«Zoritxarpean nabil  
ni beti beti,  
ez dot ba iges eingo  
ludi ontatik?  
Zintso yokatu dot nik  
zuzentasunez,  
eskar-txara aitu dot  
onaren ordez.  
Gaiztakeria dakust  
non nai nagosi,  
zelan gura neike ba  
ludian bizi?  
Gaizto maltzura gora  
yasoten dabe,  
ona ta zintso dana  
irañez bete.

Egia aldestu dot  
bizi gustian,  
Gauza zuzenagorik  
zer ein neikian?  
Alan be zoritxarak  
yo nau ni beti;  
Ez dot ba iges eingo  
ludi ontatik?  
Onen aldez eta  
zoritxarpean?  
Ez dot nai ba egon  
txafen azpian!...  
Auxe dala nago  
oldostun beti  
noz iges egingo  
ludi ontatik!...»

Zagoz apur baten  
entzun egizu:  
«Au erbestea dala  
ez aldakizu?  
Ta erbestean zelan  
aurkitu poza,  
ez ba-da onako ein  
zure biotza?  
An goyan dauku danok  
geu-abefia,  
bizitz onetan dago  
ara bidea.  
Bizitz au atsekabez  
igaro daunak,  
goyan aurkituko dauz  
poz ta zorunak.

Egi maitaleak ba  
gitxi ludian  
ona dana saritan  
da bastefean.  
Irañez beterik ba  
Irakaslea,  
ta zoruna eskatzen  
bere ikaslea?

Egi ta Ontasuna  
Gurutzaldurik,  
ta yafaitzale dana  
atsegin nairik?  
Gudari zintsoa lez  
azaldu zaite,  
alantxe izango zau  
Yaun onak maite.

Yaso gora biotza  
kementsu izan,  
gaiztakerian kaltez  
gogoř bizitzan.

Kisto burutzat dala  
zintso yokatu,  
nai bozu azkenean  
donokiratu.  
Oldoskun baltz itunok  
yaurti egizuz,  
etsairik txafenak ba  
orexek dozuz.  
Goyan beti biotza  
zoruntegian,  
txařa garaituteko  
bizitz aldian...»

GABIREL

# ZER EDO ZER

## ALPERKERIATZAZ ETA...



poř edo alpeř aldia igarota, bařiro atal oneri ekiteko zeri oratu ene kiala, gauza onerako ainbestean ugaritu dan alperkeriatzaz, txantxetan benetan *zer edo zer* esatea otu yat. Eta lenen

*Benetako egi batsuk.*

Yaunak gauza bakoitzari zerbaiterako gaitasun berezia emon dautso. Txoriei egoak egaz egiteko, abereai oñak ibilteko ta abaf.

Onen antzera gizonari indaf almen eta adimenaz, beste sentsun gustiak emon eutsozan, ez geldi eukiteko zerbaiterako baño. Zerbait egiteko egin eban, beraz zerbait egitea. indaf eta gaitasuna zer edo zetan erabiltea gizonari dagoekio. Eta ortik beaf egitera ez dago alde andirik. Berrez lez ba, gizona beaf egiteko egiña da, eta auxe dala-ta gure lenengo gurasoak Yaungoikoak Atsegin-baratzean ipiñi zituanean baratz au landu ta zaintzeko ipiñi zituan. (Gen. II 15). Orduan beaf egin afen, beaf au neketsua ez zan izango, gauza efeza izango zan, begientzat ikustea bestean, poz eta atsegingafia.

Orain bariz edozein beaf eta zeregin nekeaz alkařtuta dabil, oin lan egitea gogof egiten yaku. ¿Beafari, lanari latz eta neketsu izatea nondik ete datorkio ba? Eta Eleiz Amak erantzuten dasku yatořizko obenařen ondorena dala neke ori, beafa latz eta neketsu izateak antxe daukela bere sustafa. Ařezkero nekea lanaren kerixa lez da eta neke bako beafik ez dago.

*Irudi baten bidez*

Diñogun au azaldu geinke. Begia berezez ikusteko egiña da, eta gauza egokiak eta argia neufiz dagoanean, ikustea eřez eta atsegingafi egiten yako. Gizonaren beafa be ofexen antzera izango zan. (1) Baña begia zerbait gexotu edo argaltzen danean, ikusteak min eta nekea ekařten dautson antzera, gizonari be yatořizko obenak itxi eutson argakeri eta zauria dala-ta, edozein beaf edo lan latz eta neketsu egiten yako.

Beaf egitea ba, Yaungoikoak gizonaren eřayetan ipiñitako legea da. Beaf edo lan

(1) Nekerik ez ařtzea, oben aufetik Jaunaren emaitzez izan zala esan beafik ez dago.



au latz eta neketsua izatea yatoñizko oben edo pekatuaren zigofa.

### *Eta oftxe dago lofa.*

Gizonok berenez neketik iges egiten dogu eta beafa neketsua dalako beafetik be bai. Zerbait neketsu egitea erabagiten dogunean, alperkeri, nagikeri eta euron senide gustiak geure inguruan safitan aurkituko doguz. Eta egin beaf dogunak onurarik ezpada kargu, naiz ta gauza egokia ta beafekoa dala esan, auzokoentzat erez itxiten dakigu.

Eta alan da be beafa beafeko gauza dala inok ezin leike ukatu. Beafak gizonari beti yafaituko dautso eta gitxi ala asko zerbait beti egin beafko dau. Gizonik guzurtiena bera nai ez da be egi batsuk esan barik ezin bizi leiteken lez, alpefik aundienak be, zerbait nai ta ez egin beaf. Eta asko ikusten diran lez beste zeregin barik, beafetik iges egin gura dabenak naikoa dauke zereginik, eta inoiz entzuten da zereginik txafena beafetik iges egitea dala.

Egia esateko, beafik txafena beafetik iges egitea dala, nire ustez.

### *Txantxetako egia*

baño ez da. Ba lan edo beafetik igecka ibiltea lanik gaiztoena balitz, alpefak langile zintsoenak izango litzakez, zereginik salena eurek antzen dabelako. Eta alpefa beafgin zintsoena dala esateak egiaren usañik be ez daukela igafteko sur andirik ez da beaf. Alan da be, beafetik iges egitea bizibidetzat artu dabenak euren armoa betetan *piñenak* dirala esango bagendu, ia egi edef bat esango geunke. Au egiztatzeke *zuri* baten lofatzai yafaitzea naiko da... Oneik alde batera itxita, bai'dira lan egin afen alpeferiak yota dagozanak.

Eta yakiña onetan maña asko dira, ta emen,

### *Alpeferiaren maña batsuk*

bakafik aitatuko ditugu. Batsuk izaten dira beaf egiten dabenak, ez beafa maite dabelako, biziteko nai ta ez egin beaf dabelako baño. Euren araua auxe dala dirudi: «Beafa albait gitxi». Oneik igande ta yai egunetan yaupa entzun, eta urtean pasko txalaz bakafik gogoratzen diran kistafen antzekoak dira. Onei eskefak Yaungoikoari urdala emon dautsiela, ostean ia gosez ilgo zirala esateko nago. Eta onangoen taldea gogotxafez ikastolara yoaten diran mutikoena baño ugariagoa da. Alan da be txalogañi dira euren indafez bizi diralako.

Bai dira beste batsuk lan gogoz egiten dabenak sakela bete arteraño, gero beafik egin barik ondo biziteko asmoaz. Oneik euren buruaz lafegitxo arduratzen dira, eta aberastuta ba-legoz, «gura dabenak beaf egin dayela» esango leukie. Onangoei irabazibako beafik ez eskatu, *alpefeko* lanik ez dabela egin gura esango dautzue ta. Oneik onurari maitasun gustia dautse, beraz al ba'lebe beafetik iges egingo leukie, eta ofetan alpefen antzekoak dira.

Onangoak gora-bera mundua dabilen lez ibiliko da, eurak ondo egon ezkeror konpon... aberats askok egiten daben lez. Eta ori ez da Yaunaren legea, sentsundun gizonarena bez...

### *Langile zintsoak.*

Bai'dira ofaitik euren onurari begiratu barik, gauza onari, asmo onurakoñai eurak al dabenez laguntzeko gertu egoten diranak. Euren zereginak atsekabe asko ekañiko dautsiela yakin afen, txindia eralgi beafa euki afen, beti gauza on eta egia

zabaltzeko biotza gertu daukienak, ondo dakie Yaunak euren adimen, txindi ala lanerako gait suna, gordeta eukiteko ez dautsiela emon, eta beaf asko egiten dabez lagun urkoaren alde, *egin beaf diralako*. Onei alpekeriak beingoan aginiñk ez dautse ezariko!

Eta onangoxeak beaf diralagari non nai eta *Yaungo ko Zale'n* be bai...

*Gaiztoak lorik ez dabe egiten.*

Alde gustietatik, aldi gustietan eta era gustietara, gaitzakeri ta guzura zabaltzen diardue. Eta oren aurka zer egiten da Euskal Eriari?..la ezer bez!

Geyenak tamalez beterik esango dautzue: onezkero gaitza aufera doyala, eta alpeko lana dala ezertan astea. Eta besoak idunduta euren nagabea azaltzen of ikusiko dituzuz. Ori bariz alpekeriaren aitzakia baño ez da. Beste batsuk ostera, *limbotik* urten bariak dirudie. Gauzak ondo ez doyaz, baña txarago egon laitekezala-ta, ia pozik bizi dira baña... ezer egin barik, eta, egiten dabenari be, ez, lagun-du, edo beaf ba'da ixlik baño, ezpada be aurka egin. Eta orek okereko bideak dira.

*Bide zuzena bien erdian.*

Gure eri, oitura ta abaf txarto doyazala? Zeuk aldozuna eginda gero diñozu?.. Ondo dago, ta aufera!..

Txarago ez dagozanean pozik zagozala? Ori zeuk aldozuna obetuteko eginda gero ba'diñozu, ondo dago ori be... Gexo bat maite danean, osatzeko itxaropen andirik euki ez da be, alegin gustiak egiten dira eta gustiok ontzat emoten doguz. Bakistaf lez eta euskaldun lez maitatu beaf ditugun gauzetaz auxe egin daigun. Kristiñau ikasbidea idazti ta irakufgai bidez zabaldu, liburu ta ofi txarai guda gogof egin, eta *Yaungoiko Zale'ren* asmo

ederak zabaltzen alegindu. Lan edera, egokia, ta onurakoñ dala autoitzen dozu. Ba, ez zeure alpekeriaz guzurtau aoz gortzen dozuna. Zerbaiterako edonor da gai. Ida teko ezpada irakurteko, beste basuk euren txindiaz, eta besterik ezin dabenak otoi egiñaz. Eta au gustiok egin geinkera eta *egin beaf doguna da*, goiko laguntza barik alpeko lana izango litzake-ta.

*Eta lan ori zelun egin?*

Nozipein, aize boladaren antzera, bulzadaka lez, ala ixlik al dala eta eten barik ekinda?

Edonok daki bapatean zapañada andia yausten danean, luña ondu baño len urik geyenak erekara iges egiten dabela, eta sara-sara yausten dan ur gozatsua luñean sakonago sartzen dala.

Baña au ainxinako tipuin baten bidez azalduko dogu.

*Bidezti, eguzkia ta aizea.*

Bein baten gizon bat bidez doyala, eguzkia ta aizeari otu yaken, lepoan eroyan estalki edo *kapea* kendu egin beaf eutsela. Biak batera asi ziran, eta onetan zeñiek lenago kendu posture egitea otu yaken.

Zotz egin eben eta lenen aleginiñak egitea aizeari urten eutson.

Aizea ba uzka asi zan, lenengotan leun xamañ eta geroago ta indartsuago. Bideztiak baña, kapeai egaletatik eutsita, aufera yafaitzen eban. Orduan aizeak al eban indaf gustiaz ekin eutson, baña indartsuago ta gogo geyagoz bideztiak kapeari eutsiten eutson. Azkenean be aizea aspertu zan eta eguzkiari bere txandea eldu yakon. Lenengo izpi bigunak bialdu eutsozan, eta bideztiak berotu xamañ egin zala ta, estalkia nasaitzen asi zan...eta apurka-

-apuñka lepotik kendu eban, eta azkenez  
aztun egiten yakon igarí barik besoa  
ba-tu eban eta eguzkia beste barik garailari  
agertu zan.

Ara ba aizeak indafez lortu ez ebana

eguzkiak leun-leun eta zarata barik zelan  
lortu eban...

Ipuin onek erakusten dausku lanik onur-  
akoñena, geyenez, zarata gitxi egiten da-  
benena izaten dala.

**GAMA.**

## BIDE BAKAÑA

Yaunaren bidez ez dabilena  
beti dakust nik artega,  
beti zoruna bilatu nairik  
alde batetik bestera.

Bidekatuta norantza yo be  
ez daki sarí askotan,  
zuzenbidezko argitasunik  
ez dabelako gogoan.

Eguzki argi zoragaría  
egia dala bai' daki,  
baña guzurak egi yantziaz  
atzipetzen ondo daki.

Non dan egia zelan igarí?  
¿Nok irakatsi bidea?  
¿Norantz yoko dau ilun artean  
maitatu ezik egia...?

Begi lausoak, entzumen goñak,  
girñaren yopu afoak,  
ez dituez nai Yaun bakafaren  
menpean euki gogoak

Érukariak! Ez dakie ba  
Yaunan otsein izatea  
bakañik dala ludi onetan  
zoruntegiko bidea?

Euren gogoa azke nai dabe  
iñon menpe egon barik,  
eta of dabiltz girñan azpitik  
iñondik urten eziñik.

Gentzaz zelan ba euki gogoa  
adimena lauso ba'da?  
Zorundun zelan izan biotza  
girñaren menpean dala?

Bide bakaña laga dabenak  
ez dauko beste biderik:  
bizitz onetan zoritxara-ta  
bestean ez dau zorunik.

Gentza bidea Egi-bidea  
Yauna'ren argi bakaña,  
Bide ortatik aldentzen danak  
oin da gero zoriotxara.

**GABIREL.**



# ZER EDO ZER

## IRAKURGAYETZAZ

### Yakitunen ixuría

**G**AUR egunean gizartean ixurí asko agertzen dira, baña oneitatik ez da yakitunen ixuría gitxien zabaldu dana. Au ez diñot egizko yakitunakaitik, oneik beti urí xamar izaten dira -ta. *Yakitun ez-yakiñak* ugari dirala esan gura dot. Ori zelan izan leiteken?

Ogeigarren gizaldian oso érez. *Ilustraziñoko* gizaldian bizi gara. Egunorokoen gizaldian. Egunoroko izparíngiak goxaríaz batera esku gustietara, ia eltzen dira. Eta yakiña da, egunorokoak gaur yakin leikezan gauza gustietzaz eta zerbait geitxoagotzaz be itz egiten dau... eta iyakiña! goitik bera irakurí ta gustia ziñesten dabena, aor yakitun eginda. Ez gara aritu bea' gaur yakitun burua egiten dabena baratzean poruak baño ugariago ikusteaz.

Etzetik urten da bost edo sei lagun aurkitzen ba'dozuz, bultzian sartzen ba'zara, kapera bazoaz beti olako yakitunen bat aurkituko dozu. «Neuk agindu bea' ba'neu oker dagozan gauzok laster

zuzenduko neukez... gizarteko auziok, langile ta ugazaben artekoak laster erabagi be».. eta goiko ta beko gauza gustietzaz bere eretxia emongo dautzue... eta ori iñoz be ezer ikasi barik.

Ori ezin leiken gauza dala? Ez dakit nik, baña egunoro ikusten doguna bai beintzat.

### Aristoteles'ek eta

erakusten eben, gizonaren adimena, yayotzean, *ezer idatzita ez dauken ol bat lez zala*, baña, ezer iñoz ikasi ez eta gustia dakienak (?) ikusita, batzuk esan leike buruan *zertxobaitegaz* munduritzen dirala...

Baña ez, yakituri ori beste iturí batek soitzen da. Sasi-yakitun orek irakurten dabena egunorokoa aritu egizu, eta diñoan gustia antxe aurkituko dozu... eta laster igari be gure yakitun orek *papelezko* garaunak daukazala, eta bere yakituri gustia, orlik gexo gustiak osatzeko saltzen dituezan osakayen antzera, ezertarako gauza ez dala.

Emen ikusi geinke zerbait egunoroko



irakurġayak dauken indarġa: gizonari eretxiak iruntsi eragiten dautsozala, gizona beragandu egiten dabela, axe dala bere maixua eta bere aurka ezer oldozteko kemena kendu egiten dautsola.

### Irakurġtea ba garantzitsua da.

Basili deunak bere aldiko gasteai egindako itzaldi eder baten esan eutsen *irakurġayak gogoaren yanari* dirala. Eta bizitza ta osasunerako yanaria baġo gauza garantzitsuagorik zer? Yanaria aġtzen dabenean gorputzak beragandu egiten dau, eta, bere odol biurta, gorputzeko atal, sentzun eta txoko gustietatik zabaltzen dalarik, bizitasun eta indar baria beragaz daroa. Orġxen antzera da gogoarentzat irakurġtea be. Sentzunen bidez adimen eta irudimenean sarġtzen danean, gogoak beragantzen ba'dau, bere nez adimeneko bizitza ugaritu, sendotu ta zabaldu egiten da eta irudimena bizkorġtu ta apaindu. Eta egin-egiġnean irakurġteak egin leiken on eta txar gustiaren sustara orixe dago. Eta gaur egunean irakurġtea ain zabal eta yakinbiderik erezena dalako, batez be arduraz zaindu bear litzaken gauza da.

Beraz,

### Irakurġtea ona ala txara ete da?

Norbaitetik itanduko ba'leu, auxe erantzun geinkio: Yatea ona ala txara da? —A! ori zelango yanaria dan... Ba, irakurġtea be bardin, zelango irakurġtea dan.

Egi, zuzentza ta ekandu onen aldekoa danean, adimena argitu eta biotza onera makurġtzeko gai danean irakurġtea, ona eta onurakoġa izango da. Yanari onak gorputzari onura asko dakarġtson lez, irakurġte onak asko bai asko gaiztakeriko bidetik aldenġu, eta onak onean

sendatu ditu, eta euron artean or daukogu gure Zaindari Loyola'tar Eneko deuna, irakurġgai onen bidez onbideratua. Egiz esan geinke ba irakurġgai onen zaltetasuna, Yaunaren emaitz edera dala.

### Baġa, irakurġgai txarak

Gogo biotzetan egiten dabenean kaltea, gorputzean yanari ustel eta edenez (berenez) beteak egiten dabena baġo andia goa da. Irakurġgai txara, Yaungoikoaren etsayak, gogoak betiko galtzeko asmau dabenean izkilu kaltegarġena dala esanda be, larġgi ez genduke esango. Irakurġgai txarak adimena egiaz argitu bearean, guzuraz ilunpetu egiten dau; biotza gora begira ipiġi ta ondu bearean, abereen antzeko biurġtu ta ustelkeriz betetan dau, irakurġgai onak lez bizitza emon bearean, eriotzea emoten dau. Eta auxe da, kristiġnauen ziġnesteak eta ekandu onak, gaur egunean, toki gustietan, aurkitzen dabenean etsai bildurġaria. Irakurġgai txara izparġngi edo *periodiku* yantziaraz, egunoro ta lotsa barik nai non agertuko yatzu. Edozein kale-mustur, geldoki, bultzita ta etxetan, atepetik baġo ezpada be sarġtuko yatzu, eta nai non aurkituko dozu.

### Eta lotsagarġirik baltzena

irakurġgayok kristauen eskuetan, bear ba'da egunoro eleizan dabilzenen eskuetan ikustea da. Eleizaren etsairik ez dozue beingoan ikusiko katolikotar irakurġgairik erosten, eta katoliko burua egiten dabenean eurez aurġkituten doguz Eleizaren etsayen izparġngiak erosi ta irakurġten. Gaiztakeriak indar andia arġtu dabela-ta ileta zabiz?... —Zeuk lagunduko ez-pazeunskio, indar gitxiago eukiko leuke. Kristiġnau zareala, Gure Eleiz Ama maite dozula, Aita Santuak ta Eleiza'ko

nagosiak maite dozuzala, eta Kristiñau irakatsiak bastertu, eta Eleiz Ama deunaren kaltez, zearka baño ezpada be, egiten daben izpañgi eta efebistari zure diruaz lagundu?...Ori da ama maite dozula esan, eta amoruz il gura dabenai zeure diruaz ilteko indarā emotea? Eta ori benetako maitasuna dala nok ziñestu?.. Iñok be ez. Beti erdika ibili barik uste dot ordua eldu dala bakoitza dan lez agertzeko. Ala izan alan ez...Ez beti ibili, katolikotzat dagozan askok egiten daben lez, Jaungoikoari argi bat eta txerenari beste bat ipiñi gurarik.

Eta lotsagarikeria au, gustiz zabaldu ta dagola ezagutzeko, egiz esan geinken auxe gogoan artzea naiko da: *Kristiñau burua egiten daben gustiak egunoroko txafei lagunduko ezpaleutse, erdiak eta beste laurenak be, ezin bizi izango litzakezala.*

Eta onetzaz ondo izango da Kritiñau-ikasbideak dakaeren itaun mamintsu bat ipintea:

*Eta obena ete da liburu ta egunoroko ori gaiztoak irakurtea?*

*Bai jauna, obena (pekatua) da liburu ta egunoroko ori gaiztoak irakurtea eta bardin, saltzea, erostea eta gordetea be.* Orixe Eleiza Amaren agindua, seme ona bazara, bete ta menpekoei bete eragin.....

### Ondorenak.

Gaur ziñeste epelkeria zabaldu dala ikusteko asko ibili bearik ez dago. Eta epelkeri orek sustrai sendoenetariko bat irakurgai txaretan daukala be, buruauste andi barik ikusi geinke. Eta ziñeste epeletik oitura txarera asko ibili bearik ez dago. Gaurko ainbeste erailtze ta gaiztakeriak geyenez ortixek datoz. Baña onetzaz begira Urkamendian egoala

gaste batek esaten ebana. Urkatzeko ordua eldu zanean, bere gaiztakeriaz damututa auxe esan eban: «Ni ogetalau urterarte zintso bizi izan nintzan. Orduantxe irakuri neban liburu txar batek gustiz aldatu ninduan eta ara oin nora ekañi naben»...

Baña orain: suagoko ziñaldariak daukoguz. Igaro dan astean ondiño, Barzelona'n gaizkin bi urkatu dituez. Euroatik batak, Montejo eritxonak, damututa autoñtu ordoren, bere anayei auxe esaten eutsen: «Toki baltz eta laidotsu onetara, irakurgai txarāk ekañi nabe»...

Beraz,

### . Edozer ez da irakuri bear.

Eta au lenago argitaldu dogun yasukun baten ikusi geinke.

Yatetxe baten, Kristiñau-ikasbidea ondo ekien gaste bat egoan. Bein ugazabagaz aurtemin argitaldu zan liburu batetzaz itz egiten ziarduela gasteari itandu eutson:

—Liburu ori irakuri dozu?

—Ez, erantzun eutson; ez dot irakuri, Eleizak debekauta dagola yakin dot-eta.

—Ba, txarto egin dozu, erantzun eutson ugazabak, dana irakuri bear da, ona ala txarā dan yakiteko.

Onetan baseñtar mutil bat otzarakada peretxikoaz eldu zan.

Yatetxe yaubea peretxiko zale itsua zan eta erosi eutsozan. Alan da be batsuk ez eutsen begia betetan, eta, bateri usain egiñaz gasteari esan eutson:

—Peretxiko oneri zer deritxoezu? Onak ete dira gero?

—Gizona, txastatu, probau egizuz, erantzun, eutson gasteak.

—Baña, txarāk urtengo ba'lebe?..

—Ez dautso ardura, zeuk diñozunez gustitarik probau bear ba'da..!

—Zorua! esan eutson asañez ugazabak, ilteko zorian yañi neinten gura dozu?

—Eta zeuk zegaitik gura dozu len aitatu dogun liburua nik irakurtea, óratarako eskubide ta yakitura daukanak txarñ dala esanda gero be?...

“Baña mundu gustiak irakurten dau ta?”...

Eta zer? Peretxiko txarñak mundu gustiak yan da be obetu egingo litzakez ala?

Ara gai onetzaz, eta amaitzeko erantzun poli bat:

*Klermont-Tonnerre* prantzitar kardinalari, 1828'an ministro zan batek, zer-

bait egiteko eskatu eutson *mundu gustiak egiten ebana* zala ta. Zerbait ori bere bearkunaren kaltekoa zan. Eta larogei urteko agure zintsoak erantzun eutson.

«Yauna, Kalisto II'ak 1120'n nire sendiari emon eutson ikuñdiko (eskudo) itzak onexek dira: *Etiansi omnes ego non, Beste guztiak eginda be nik ez...* Eta itzok dira nire kontzientziak diñostazanak be»,

Eta órerek izan beañ leukie katoliko gustien itzak egunoroko txarñak edonok irakurten dituala esaten dautsenean.....

**GAMA.**

# Auferapidea? Bai, zera!...

○○○○©○○○○

*Auferapidea? Asmakizun asko  
gizadi bizitza onuratzeko,  
bultzi, tximistaŕgi, egaizkin azkaŕak  
luŕun ontzi onak azkaŕ ibilteko.*

*Yaki gayetan be nain dan erakoak  
estalki soñeko baregaŕiak,  
yolastoki eta atsegin baratzak  
zenbatu eziñak; ikusgaŕiak!...  
Buruan ames bat. Ondo ibiltea,  
naikeri gustiak beti asetu,  
erbeste ontako negaŕ malko danak  
nai ba' leukiez lez gustiz leortu.  
Ta gizatalderik izugarienu  
beste ames barik yai gustietan,  
ibai zabala lez, yoranez dakust nik  
yoko galgaŕian ta yolasetan.*

*Lan egingo dabe; ukatuko dira,  
ainbat txindi geyen irabasteko;  
gero sentzun barik, yolastokietan  
itsukeri baltzez eralgiteko.  
Egizko Yaunagaz aztuta dabilnaz;  
yolas-atsegiña asmo bakara,  
ta euren asmoak ondo urten ezik  
«Gaizki da ludia! «jLudi zataŕa!».  
Erbeste beti izango da ziñez,  
atsekabe latzen yayoteria,  
lenengo guraso gaxoen obenaz  
ludia beti negaŕ eŕia.*

*Negaŕa gozatu, leuntasun gentzagaz  
gizonen zoruna, beti sendotu  
egin al dayena, orixe bai ona  
egin leikelako gizona ondu.  
Oŕetan laguntzen dautsona beti da  
egiz ta benetan auferapena,  
leundu ta onduten ez dabenak bariz  
ez dau aŕtu beaŕ ain izen ona.  
Zer ba? Yan edana, yolas ta yokoa,  
abere usainduna beti dalarik,  
adimendunentzat zelan izan leike  
auferapide? jEz olakorik!...*

GABIREL.



# ZER EDO ZER

## IDAZTI (LIBURU) ONAK

### *Moldako letrak*

gizonai zerbait ziñestu eragiteko dauken indaŕa guztiz andia dala egunero dakusgu. Zergaitik ete da? Nik uste dot, onetan, dotore ta apain yantzita agertzen yakuanakaz yazoten dana baño ez dagola. Norbait dotore yantzita, zerbait irakasten agertzen ba'yaku, geyenez berbera arlote yantzita agertuta baño, berak diñoana eŕezago ziñestuko dautsogu. Bai, ba, *azalak* sentzunak eŕez beragantzen ditu, eta adimena zuŕ ezpadabil atzipetu be bai....

Oŕexegaitik-edo *moldako letretan* ikusi ezkeru, guzuŕ biribiñen bat izan ezik, eŕez ziñestu edo beintzat aintzat artuko dabe geyenak eta beste askok be bai, zerbait sentzun daukela eurak uste izan aŕen; eta,

*Bizitza egi ta guzuŕaren arteko buŕuka dalako.*

Egiaren etsayak, yantzi apain oŕegaz estalduta, garailari urteteko alegin gusti-

ak egiten ditu. Eta X'n Leon Aita Santuak «*Yaungoikoaren emaitz*» edeŕa lez aguŕtu eban iraŕkintza (imprentea) ziñestearen etsayak, guzuŕaren alde z kilurik onena lez darabile, idazti txafak ugarituaz.

Zinestearen etsayak ondo dakie; gizona oldoskunak pentzamentuak darabilela, eta gizonaren adimena nainora eroateko irakuŕgaya aukerakoa dala. Etsayakandik ikasi daigun ba, idazti onari beaŕ dan gafantzia emoten, eta eurak txafen alde baño geuk onen alde gogotsuago yokatzen....

### *Adimenaren yanaria egia da ta,*

Gizona aberea izan aŕen, adimendun aberea da, *gizon* izateko ba bere leraz eta oldez ez dau ibili beaŕ, egiaren argiaz baño. Eta egia, ontasun eta egizko edeŕtasunaz alkaŕtuta dabilelako, egi-bidetik dabilena, ontasun bidetik be bai'dabil, egiak irakasten dabena egiten daben bi-tartean. Oŕexegaitik egiteak euren ontasun eta edeŕtasuna, egiak irakasten daben

bidetik aldentzen diran neufiz galtzen dabe. Eta,

### *Egitearen gogoa oldoskuna dalako*

Egite onakin bere biotza aberastu gura dabena, oldoskun onez bere adimena aberastuten alegindu beaf dau. Oldoskun onak ugaritu daiguzan ba, egite onak ugaritzeko. Eriak, sendiak eta lateriak zuzentzeko ortixek asi beaf gara; eta geure burua zuzentzeko be bai....

*Mundua* ba, gizona lez oldoskunak darabile...! Baña

### *Egia non aurkitu?*

Gizona bizitz onetan zorioneko bidetik ibiliko ba'da Yosú-Kisto'ren irakatsiak entzun eta egin beaf ditu. Adimeneko laño baltzak ezereztuteko gaí dan argi bakaña Yaungoikoaren Seme Gizon egindakoak irakatsitakoa da, berak diño ba *Argia Neu Naz...* (Yoan. XIV-6). Gure Yau-naren argi onetatik gizona ezin leiteke al-dendu, guzúr eta gaiztakeriko ilunpean yausi barik.

Gizonaren adimena yatoírizko obenaz lausotuta gelditu zalako, bere zorionerako izan leitekezan egietatik banaken bat, nekez eta guzúrez nastauta bakañik ezagutu leikez, eta ori adimen zolidun banakak bakañik, eta orixe dala-ta, «Kristiñau ikas-biderik» aintzat aítzen ez dabenen artean Babel'eko nastea baño txarago dabiz; burutan beste aburu, eta (au *intelektualen* baimenez) zoroetxean *nobiziaua* igarotakoak geyenak dirudie.

Beraz, zintzotasunez egi bíla dabilenak, egizko Yakituritik aldentuta dabizenen artean saítu beañik ez dauko, zuzenbidean yakin beaf dabena gustia ogei gizaldi oneitan Eleizan izan diran yakitunak irakatsiko dautsoe-ta. Eta au gizabide ta

aúferapenean goirantz igoteko beañekoa da. Gure asaben irakatsiak aintzat aítu beaf doguz, arein ikaskizun onak oraingo ikaskizunakaz alkaítu ta osotuteko. Lenagokoen aberastasunakaz orixe egiten da, yakidiakaz be bai, eta berberau irakatsi onakaz egin beaf da.

Oretarako eurak itxi dauskuezan ondasuntegiak idazti onak dira.

### *Idaztiak.*

Gizon yakitunak euren aburu eretxi ta asmakizunak, toki gustietan zabaldu eta iraunkor egiteko bideak dira. Antxiñeko gauzak eta beti gañantsituak, baña batez be irakintza (imprentea) asmau ebenetik askozaz gañantsitsuago egin dira, iñoiz baño yakinbide ezez, zabalena eta beañekoak diralako.

Idazia, adimena argitu, biotza onera bultzatu ta girñak eziten irakasten dabena ba'da, gizona *gizondu* egiten dau, eta go-goarentzat yanari indaítu eta onurakoena da. Baña gogoa ilundu, biotza naspildu, eta girña txarai indaía emoteko ba'da, gizona *aberetu* egingo dau eta gauzarik kaltegañena da.

### *Idazti onak aukeratu.*

Idazti onak aizkiderik onenak dirala esaten da. Idazti onak egiak argi ta garbi, zeañka ibili barik, esaten dauskuz, onetan aizkiderik onenak baño garbiroago itz-egiten daki, ba onena be, geugan oaf-tzen dauan utsa esaten ez da asaítuko safitan, geure bañuan oker egin dogula ezagutu azen besteak arpegira yaurtitea atsegin ez yakulako. Idazti ona geuk gura dogun tokira laguntzeko beti gertu daukogu, eta geuk gura dogunean ixiltzen da. Idazti onen bitartez gizaldi gustietako gizon on eta yakintsuakaz itz-egin geinke, toki

gustietako yakitunak gure aizkide, onulari eta irakasle egiten dira, eta safitan bere izkuntza itxi eta geurean itz-egingo dauskue. Idazti onak gure adimena argitu ta yakituriaz aberastuten dabe; bakaftasunean lagunik onenak dira; atsekabe aldian artetu eta zalantz aldian argitu egiten gaitue, eta txafkeria gaiztetsiaz oben-bidetik aldentzen gaitue....

Beraz idazti onak idaztea, irakuñi, erosi ta zabaltzea gure buruagazko, eta geideagazko maitasun-egintza edefenetariko da.

Au egiztuteko,

### *XI'n Pio Aita Santuaren itzak*

ipiñiaz amaituko dogu. Iges Milan'go idazle eta egunoroko katolikotafak, ibildeunez Aita Santua ikeftu eben. Aita Deun gurgarfiak egin eutsen itzaldian auxe esan eutsen: «Zuen egintza egizko maitasun-egintza da, eta yakituriz egindako zeregiña atan be, Goteunak nai daben lez: ba maitasuna, onbideen eregiña izan arén, zur-

tasunaz zuzendua izan beaf dau. Auxe adirazten emon gura eban Manzoni idazle ospetsuak berak gomutarazten dauskun yazokun baten: Federiko Bofoimeo (1) kardenal ospetsuak, bere idaztitegia idazti ederez apaindu ta aberastuteko dirutza andiak eralgiten zituan, eta norbaitek beste maitasun-egintzetan ondo eralgi zeikian ainbeste diru idaztitan eralgitea bear ba'da egoki ez zala izango adirazten emoten eutsonean, idazle ospetsuak itaun auxe egiten eutson: Idazti onak norberagandutea, maitasun-egintza bikaña ez ete da...?

Beraz idazti onak erosi, idazti onak zabaldu, eta zabaltzen dituan bazkunai lagundu

Eta... YAUNGOIKO ZALE'ri be bai... idazti onak euskaldunen artean zabaltzeko softua da-ta.

**GAMA.**

---

(1) Bofoimeo kardenal au, Carlos deunaren lengusua izan zan, eta Milan'go Gongotzaintzan bere ondorengoa. Milan'go *Ambrosiana* deritxon idaztitegi ospetsua, beronek irasi eban.



# ZER EDO ZER

## IDAZTI (LIBURU) TXARAK

### *Gizonak gauzarik onenak*

alpefik galdu eta txar biurtzeko dauken gaitasuna bildurgafia da. Girñak ezi eta bere buruaren yaube danean erle zoliaren antzera, ezti gozo eta osasunkoña mundubaratzean diran lora gustietatik ataraten dau. Baña, girñaren menpean yarten ba'da, lorarik ederenetik, sugearen antzera, eden (bereno) kaltegaria baño ezdau atarako. Au, edestiari begirakadaxo bat bakañik eginda, gizaldi gustietan gertatu dala ikusi geinken egi tamalgafia da.

Eta gauzarik onena, asmo txaragaz erabilten danean, kaltegarien biurtzen dalako, gure gogoaren etsayak Yaungoikoaren emaitzik ederenak bere asmo txaren alde biurtzeko alegin gustiak egiten ditu. Gaiztakeria bera dan lez gitxitan agertuko da; eta al daben gustian ontasun, gizabide eta auferapen yantzi az agertzen zalezalea da. Gaiztakeria guzuraren anaya da, eta guzurak egi yantzi az lez, gaiztakeriak ontasun yantzi az apainduta, guk uste dogun baño safi agotan agertzen daki. Eta irafkintza (imprentea) ain gauza edera izanik bere asmo gaiztoetarako ez erabili? Bai orixe! Txefena ez da leloa..! Eta alantxe egin be...!

### *Egiaren ur garbi gardena*

zabaltzeko softutako itufi edera, Eleiza

Amaren babespean sortu zan irafkintza (imprenta) gaur lizunkerizko lokatzez eta guzuzeko ur baltzez zikindurik doyan ibai zabala dirudi. *Balmes* yakintsuak idatzi eban lez «Irafkintzak egin eban lenengo idaztia Idazti Deuna izan zan, eta gaur emakume latsa-bakoen izketaraño yatsi da» (La Sociedad, l'go atal; 282'ko of.) Eta ibai onek indafitsuago ta zikinkeri geyago egunerik egunera basteñ gustietan zabaltzen dau. Egiaren izpi gozoak zabaltzeko asmautako asmakizun afigari au, gaur irafñen dana ikusita, guzura ta oitura zatarañak zabaltzeko asmautakoa dala dirudi. Ara gauza edef batek girñaren atzamañetan norañoko kalteak egin leikezan..! Tamalgafia da ziñez, baña egi argia be bai..!

Ez da ba aritzekoa

### *Veillot idazle ospetsuak esaten ebana.*

Ainbeste gauza edef idatzi zituan gizon adoretu ta bikain onek, idazti txafen kalteak ikusirik esaten eban, «bere eskuetan ba'lego gizadiari irafkintza emotea, emon baño len «ondo pentzauko leukela». Eta izan be ez da gitxiagorako. *Gutenberg* berbera gaur agertuko ba'litz, eta bere asmakizun goragafia, gaur egunean geyenez zelango idaztiak ugaritzeko gizonak darabilen ikusi, poztu beañean, lotsatu egingo litzakela uste dot, eta damututa agertu be bai, bere asmakizuna, abereak



baño sentzun gitxiago daukenen eskuetan geyenez yausi dala ikusirik.

Egiz esan geinke ba, idazti txáren

### *Uriola baltza*

irafkintza bidez lufaren gain yausi dala. Toki gustietan, idaztitegi geyenetan, idazti txáfa besterik ez da ikusten. Idazti txá-ak Yaungoikoa ta gogoko gauzak alde batera itxi, eta gizon afo ta guzufezko yakitunen eretxi txatxá eta kaltegariz beterik nora ez dira eltzen..? Idazti txáak, geroago ta gorago doyan uriola baten antzera, inguratzan gaitue. Eta beñolako Urioleak gorputzetan baño, giza-gogoetan kalte andiakoak, ogeigarfen gizaldiko uriola onek egiten ditu. Guzufa, iluntasun eta ustelkeria alkaftuta irakasten daben idaztiak egunerik-egunera ugaritzen dira. Eta Yaungoikoak bakarik daki, idazti txáak gogo-biotzetan egiten dituen kalteak..! Eta uriola onen txipristinetatik iges egiteko, Noe'k egin ebana egin beafean aurkitzen gara: Eleiza Ama deuna dan Kutxa edefean sartu; bere babespean yafi, eta Katolikotaf zintsoari dagokion lez, bere baimenaz argitaltzen ez dan idaztirik ez irakufi, eta irakurten dituenagandik, suegandik lez iges - egin... eta euskaldun garanez Yaungoikoari eskefak emon ondiño gure izkuntza gozoan irakufgai txá-rik agertzen ez dalako...

Idazti txá gustiekaz arduraz ibili beaf gara ba, baña batez be

### *Ezti bafuan edena (berenoa)*

estaltzen dabenakaz ardura geyagoz ibili beaf gara. Onangoak ugari dira ba. Eta ez oin bakarik. Ara Bernardo deunak XII'n, gizaldiak, (gizaldi bi irafkintza asmau afe-etik) Inozentzi Aita Santuari idazten eutsona: «Idaztiak toki gustietan egaz dabiz;

uri ta basefietan saftzen dira, eta olantxe argi ordezt iluna, ezti ordezt, edo obeto esateko *ezti bafuan edena* gustieri eskintzen yake»... (Epist. 189).

Ori orduan; eta gaur bizi ba'litz zer esango ete leuke? Gaur, ainbeste gaiztakeri estalki edefenez apainduta agertzen diran aldi onetan..?

### *Sentzun bako yakitunak (?)*

Idazti txáren kalteak, gizonen eretxi, eta efien oituretan goiz edo belu agertzen dira. Gaur egunean eretxietan ikusten dan naspila, gauzak atzekoz - afe ikusteko itsu diran ainbeste gizon «argi» izeteak, geyenetan idaztietan dauko bere sustafa. Gaur beti lez Yaunaren bide bakafetik al- denduta dabilztanak eta nora yo ez dakie- nak ugari bai ugari dira, eta *intelektual* izentzat aftuta, sentzunik ez dauken yakitunak (?) nai non aurkitzen doguz. Oneik ezer irakufi ezpaeben zerbait sentzun eukiko eben beaf ba'da, baña «gustia yakin beaf dala» ta *onak izan ezik* beste idazti gustiak irakurten dituez, eta dauken sentzun apufa galdu egiten dabe. Onek gogora dakarst nire aizkide bateri zoro bateg erantzun eutsona:

Zoro etxe bat ikertzen yoan zan, eta an agertu yakon gizonezko zoro bateri itandu eutson: Zu gizon, au zoroetxea da? —Ez,—erantzun eutson zoroak — au, *no- biziaua* da, zoroak kanpoan dagoz...

Zoroak egiak esaten mutilak dira...!

Irakurten dana irakurita ez gara afitu beaf ba,

### *Aize-ofatz edo beletea lako gizonak*

ain ugari ikusteaz. Lenago ainbeste irakufi ez afen, gure basefitafak, oingo yakitunak baño sentzun geyago eukiten eben,

eta buru aztunekoak ziralako, aize-oratzak telatu geyenetan ikusten ziran. Oin bañiz *ilustraziñoa* zabaldu dan ezker, telatuetan beleta gitxi, ikusten dira, baña zorbalda gañetan iñoiz baño ugariago. Buru ariñak dira-ta, edozein axek batera ta bestera erabili beař....

Eta alan da be, gu katolikotařok euren eretxiz ilun-zaleak ei gara, eta euren buruan kurtzulu batek baño argi geyago euki ez ařen, eurak ei dira

### *Argi-zale bakařak!!!*

Egirik garayenak, ezpayan euki naiz ukatu, norbere eretxia gauza gustietan danen gañetik ipiñi: tanbolin uts batek baño aixe geyago buruan, eta zuek argi zaleak? Ořetara ezker, etxean lapuřetan egin eta etxeari sua emoten dautsen lapuřak be argi-zaleak dira. Ba, orixe egiten dabe, idazti txarařak idatzi eta irakuřten dabezanak. Bere buruari eta geideenari ziñesteko argi edeřa ostu; eta idazteko

erabili daben tinte baño su ta laño balzagoa piztu, giřña gustiak sututa....

Argi edeřa ziñez! gizona betiko ilunpe ta zoritxařpean ipinten dabena....

Beraz idazti txarařak, biotzez gořotau beař doguz, geure burua eta geidea maite ba'doguz.

### *Eta idazti onak aukeratu.*

Lorak artzen ditugunean arantzak arduraz aldentzen doguz. Idaztiak aukeratzean be ardura ori euki beař dogu, onak ařtu ta txarařak baztertu.

Onak zeintsuk diran?

Bein berak irakuři eban idazti bat goralzten ziarduan emakume batek abade baten ařean.

Abadeak itandu eutson? — Idazti ořek obetu egin zaitu?

Ez ba, baña ařetaz irakuři dot....

—Obetu ezpazaitu, ziur yakin zeinke idazti ori txarařa dala....

Ara guk azaldu gure asmoak. Jaungoiko-Zale-Bazkunak, Obispo jaunaren bai-menaz eta berarizko onespenez iru urte onetan argitaltzen dauan «Eleiz Ofia» polito zabalduaz doa ta zaletasun andiaz irakurten da efietan. Baña ondiño geyago zabaldu biar da ainbeste on egiten dauan orí irakurgarí au.

Pařoko jaunen esku bedeinkatuetan dago zabalgunde ori egitea. Eskakizunak betoz Urte bari egunerako.

## Misiñoetarako eleiz jantziak

•••••

Asi dira bialtzen efietatik; Markiña Etxebari'koak artu doguz: alba bat, erokete bat, amito bat eta korporal batzuk, oso ederak. Beste eri batzuetatik itandu daskue zelan bialduko dabezan. Baña ba dira ondiño gertu ez daukezala diñoenak be ta ia urte onen azkenerako bialtzea bial-biarekoa dan ifanduten dabe.

Onei eta beste gustiei esan biar dautsegu Urtafiña'ren 31'garñenerarte bialdu leikeezala. Ez doguz estutu gura ta astiro-astiro egin beie euren lan ori.

Ta gaur besterik ez. Uřengo zenbakian esango dogu zerbait gustioen pozgarí izango dana.

## ¡Bethleem..!

Goazen, goazen  
poztasunez,  
Belen'go txabolara,  
Ume maite, kutunena  
biotzez guřtutera,

Azkatxo baten  
ume eder bat da,  
otzez darđarka  
biłotzik,  
Gotzonen talde  
zoragafia,  
abesten datof  
zerutik.

Artzaintxu onak  
esnatzen dira,  
abes gozoen  
soñuaz,  
eta lasterka  
yaikiten dira  
batak besteai  
esanaz:

«Goazen gustiok Belen'era  
gertatu dana ikustera».  
An doaz danak alkařen leyan  
pozez oldarka biotza,  
yoran-yoranez ikusi naye  
Yosu, ludiko Bizitza.  
Eta estalpe zar-zar batean  
aurkitzen dabe Auřtxoa,  
otzez darđarka, txiro-txirorik  
ludiko yaube Altsua.  
Ařitzen dira ezaguturik  
Yaun maitasunen indafa,  
eta biotzez guřtuten dabe  
Yaungoiko Seme Bakařa.  
Euren emaitzak eskintzen dautsez,  
biotz maitati samuřaz,  
eta Belen'dik aldentzen dira  
oldozten apaltasunaz:

«Yaungoiko dala, gustiz apalik  
zelan dakusgu Yaun ona?...  
Nai ta nai ez da neurřigabea  
Yaungoikozko maitasuna...»  
Ta bitařtean gotzon taldea  
abesten dabil alaiki:  
«Aintza goyetan Yaungoikoari  
gentza zintzoa danari...»